EUSKARA

AZAROA > ABENDUA 2020




# AZKUNA ZENTROA ALHÓNDIGA BILBAO

gizartea eta kultura garaikidea

Bilbao

Azaleko irudiak: Oscar Gómez Mata, Az-Kidea Artista Asociado a Az, Lantegiko bidean // Janet Novás eta Mercedes Peón. *Mercedes máis eu*. Arg.: Álvaro Serrano Sierra

Azkuna Zentroa Bilboko Gizarte eta Kultura Garaikidearen Zentroa da. Artearen, artisten eta herritarren, eta sormenaren inguruko ikerketa, berrikuntza eta garapenaren habita.

7 *Zuzeneko espazioak, kultura esperientzia gisa bizitzeko.* Fernando Pérez. Azkuna Zentroko Zuzendaria
8 Mabi Revueltaren partida Hilezkorra
12 Ana Laura Aláez-etik Prototipoak-era
14 Mediatekak T berria aktibatu du
16 dendAZ. This is Basque Design. Azkuna Zentroaren saltokia
18 Sorkuntza garaikidearen loturak, elkarrizketak eta deribak

## PROGRAMAZIOA

### /Arte garaikidea

22 Mabi Revuelta. *Acrómatica. Una Partida Inmortal.* Erakusketa
24 Amparo Badiola, Gema Intxausti eta Susana Talayero. *Scriptbarik*. Erakusketa-proiektua
26 Iván Gómez. *La prospección de Kairós.* Erakusketa-proiektua
28 Mario Paniego. *Espacio públic(itari)o*. Erakusketa. Komisario berriak
30 Pernan Goñi. *Emakume apartak*. Fatxada Proiektua
31 Josune Urrutia. Fatxada Proiektua
32 Sra. Polaroiska. *Emakume jakintsuen kontseilua.* Az-Kideak Artistas Asociadas a Az
33 Aimar Arriola, Manu Arreguirekin hizketan. *Forma desira*. Az-Kidea Investigador Asociado a Az
34 Aitor Saraiba. *Autobiografías*. Tailerra
35 Leticia Paschetta. *Paisaia ludiko zuria. Laztanen jokoa (Caresses Playscapes).* Instalazioa
35 Néstor Lizalde. *Akelarre elektrikoa*. Instalazioa

### /Arte biziak

36 Mitusu, haur eta gazteentzako antzerki-aretoa. Antzerkia
38 Iker Gómez. *Un día Cisne en el Teatro*. Dantza
40 Wang-Ramirez Company. *W.A.M. - We are Monchichi.* Dantzaldia
42 Janet Novás eta Mercedes Peón. *Mercedes máis eu*. Dantza eta musika
44 El Conde de Torrefiel. *Los protagonistas*. Dantza
46 Macarena Recuerda Shepherd. *¡AY! ¡YA!*. Dantza

/Zinema eta ikus-entzunezkoak

49 *Zinemaren historiako 50 harribitxi (II. zatia).* Zinemateka

52 *Kinu#3*: Sabine Groenewegen. *Odyssey*. Tractora Koop. E., Kolektibo Egoiliarra

54 Bilboko Zinemaldi Fantastikoa - FANT. Zinema

55 ZINEBI. Bilboko Dokumentalen eta Film Laburren Jaialdia. Zinema

/Literatura

56 Eguillor inédito. La obra póstuma inacabada. Literatura-komiki topaketak

58 Irakurketa Errazeko Kluba. Irakurketa

/Kultura digitalak

59 Transbiótica Bilbao - Sorkuntza Kolektiborako Gailua. Kultura digitalak

/Gizartea

60 VII Bilbao European Encounters. Topaketa

**SORKUNTZA ARTISTIKOKO PROIEKTUAK**

62 Tractora Koop. E. *Kinu*. Kolektibo Egoiliarra

64 Babestu, sorkuntza garaikidea babesteko programa berezia

66 Artista eta ikertzaile Az-Kideak Artistas e Investigador@s Asociad@s a Az

68 Deialdiak eta egonaldiak 2020-2021

**AZ**

72 Azkuna Zentroa argitalpenak

74 Eskerrak

**AGENDA**

78 Agenda

84 Informazio orokorra

85 Azkuna Zentroa, gune segurua


ZENTROA ALHÓNDIGA BILBAO

# Zuzeneko espazioak, kultura esperientzia gisa bizitzeko

Instituzioen arteko lankidetza inoiz baino beharrezkoagoa da zuzeneko kultura-espazioak sortzeko, eta publikoen komunitateei laguntzeko berriz elkartu daitezen artearekin, antzerkiarekin, zinemarekin, dantzarekin eta abarrekin. Azken batean, kulturarekin. Horregatik, azaroko eta abenduko programazioaren zati handi bat lankidetza horretatik abiatuta osatu da.

Urteko azken hiruhilekoan, gure Zentroa zinemazaleentzako, fikzioa eta film laburra maite dutenentzako topagunea izango da. Gure Zinematekako programazioarekin batera, Bilboko bi zinemaldi nagusik -FANTek, Bilboko Zinemaldi Fantastikoak, eta ZINEBIk, Nazioarteko Film Labur eta Dokumentalen Jaialdiak- beren leihoak irekiko dituzte gure zinema-aretoetan, eta plataforma digitalen bidez. Espazio fisikotik haratago, parte hartzeko aukerak zabaltzeaz gain, elkartzeko aukera berriak eskaintzen dituzten formatu hibrido horietan.

Baina lankidetza hau batez ere arte eszenikoen esparruan eta familientzat bereziki pentsatutako hainbat proiektutan oinarritu da, eszenarekin berriro elkartu daitezen.

Hala, Mitusurekin batera, eskoletako publikoari zuzendutako ziklo bat prestatu dugu, maila artistiko handiko ikuskizunekin eta edukiekin, lagungarri izango baitzaie izaki sozial gisa berregiten eta beren emozioak adierazten. Aurten ere Dantzaldia izango dugu, La Fundición taldeak antolatutako Nazioarteko Dantza Jaialdia. Wang-Ramirez Companyk *W.A.M. - We are Monchichi*, aurkeztuko du auditorioan, publiko-mota guztientzako ekoizpena, mundu osoko ikus-entzuleek ikusia eta gure identitate anitzak zalantzan jartzen dituena.

Iker Gómez koreografoak *Un día Cisne en el Teatro* ikuskizun-tailerra proposatuko digu. Artistak proiektu hau sortu du, hainbat esparrutako irakasleekin batera, gaitasun pedagogikoa eta balio sozialak eta izaera berritzailea dantzaren bidez sustatzea ardatz gisa hartuta.

Macarena Recuerda Shepherd-en eta El Conde de Torrefielen (Pablo Gisbert eta Tanya Beyele) proposamenek osatuko dute arte eszenikoen programazio hau, haurrak eta haien familiak eszenarekin eta bertako protagonistekin elkartzeko berariaz pentsatua; zuzeneko kultura partekatzeko, hunkitzeko, bizitzeko eta berriro esperimentatzeko.

Fernando Pérez
Azkuna Zentroa - Alhóndiga Bilbaoko Zuzendaria

# Mabi Revueltaren partida Hilezkorra

Mabi Revuelta artistak (Bilbo, 1967) *Acromática. Una Partida Inmortal (Akromatikoa. Partida Hilezkorra*) izango du ikusgai erakusketa-aretoan, bere ibilbidea berrikusteaz gain, *Acromática (Akromatikoa)* azken lana aurkezten duen erakusketa.

Susana Blasek (Madril, 1969) komisariatu eta Tabacalera Promoción del Arterekin (Madril) koproduzitutako erakusketa honen diskurtsoak xakearen historiaren dramaturgia



*Natura hila perla beltzekin* (2002)

## Hasiera: *Natura hila perla beltzekin*

*Pearls* (2002) pieza berrikusia, orain natua hil eskerga bihurturik, minimalismoz eta eutsitasunez, finituaz eta hilezkortasunaz mintzo da aldi berean. 2002ko bertsioko perlez eta esferez gain, orain forma inperfektuak, irudikapen organikoak, elementu geometrikoak eta etxeko tresnen erreplikak daude, eta, hala, partikula multiformez betetako mantu geldi beldurgarria sortu da.

du ardatz nagusitzat. Hasteko, *Natura hila perla beltzekin* instalazioa du sarrera gisa; gero, *Jokoaren erdia* espazioa dago, *Acromática* osatzen duten pieza guztiak erakusgai dituena; eta, azkenik, *Partidaren amaiera* dator, non, *Denboraren lerro* baten bidez, artistaren ibilbidea berrikusten dugun, lau arotan antolatuta, xakean bezala.

Mabi Revueltaren obrek gogoeta egiten dute artistaren lanean hasieratik agertzen diren gai unibertsalei buruz: errealitatearen eta fikzioaren arteko harremanak, generoen iragazkortasuna (literatura, arte eszenikoak, eskultura, marrazketa, ikus-entzunezko arteak), hezkuntza artistikoari buruzko ikerketa eta estrategia didaktikoen bilaketa ekintza artistikoa aldaketa sozialaren eragile gisa baloratzeko.



*Acromática* (2020)

## Jokoaren erdia: *Acromática*

*Acromática* diziplina arteko lan bat da, artistaren bilaketa askori buru ematen diena, besteak beste, XX. mendeko abangoardien ondarearen berrikuspenari edo artearen eta hezkuntzaren arteko zubiei buruzko ikerketari. Hilezkorra, xake erromantikoaren partida eder eta ospetsua, eta Marcel Duchampen joko honi buruzko istorioa oinarritzat hartuta, Mabi Revueltak narratiba original bat egiten du, dantza, bideoa, argazkia, eskultura eta jantziak ardatz hartuta.

# Mabi Revueltaren partida Hilezkorra



*Acromática* (2020)

*Jokoaren erdiaren* ikus-entzunezkoen arloan dago *Acromática*-ren funtsezko zatia, Mabi Revueltak zuzendutako bi filmak. Proiekzio sinkronizatuan jarrita, Mursego eta Itziar Madariagaren jatorrizko soinu-bandaz gain, Ibai Labegak diseinatutako jantziak, Gaizka Bourgeauden argazki-zuzendaritza, Blanca Arrietaren koreografia-zuzendaritza eta Txuspo Poyoren zuzendaritza-laguntza dute.



*Acromática* (2020)

Bideoekin batera, mugimenduen sekuentzia hautatuak atzematen dituzten zortzi argazki, xake-taula itxurako instalazio bat, dantzarien jantziak eta markoan sartutako berrogeita hamar orrialdeko ohar-koaderno zehatz bat agertzen dira.



*Una línea de tiempo. Era hipermoderna*

## Partidaren amaiera: *Denboraren lerroa*

Artistaren lanari buruzko diskurtsoaren eraikuntza nabarmentzeko, komisarioak xakearen historiaren etapakako sailkapena gainjartzen du Mabi Revueltaren lanaren bilakaera kronologikoan, eta lau kategoriatan antolatzen du artistaren lana. Kategoria horiek xake-jokoaren historiako aroak definitzen dituzte, eta, aldi berean, jokatzeko eta diziplina unibertsal honi aurre egiteko lau modu dira.

### Aro erromantikoa: Afektibitatea eta pultsioa

Lehen aro honetan, artistaren lehen hamarkadako lan asko daude, ibilbidearen lehen urteetako intuiziotik, bultzadatik eta grinatik sortuak baitira.

### Aro zientifikoa edo klasikoa: Zehaztasuna eta artxiboak

Etapa honetan dauden obretan, gorputzaren eta identitatearen tratamendua urrunago kokatutako begirada batez lantzen dira. Medikuntzari buruzko aipamenek material bigunak eta organikoak ordezkatzen dituzte. Gorputzaren barrualdea, eta zehazki eskeletoa, erradiografietan eta eskulturetan berpizten da, eta hautematen da proiektuak aurrez gehiago planifikatu eta gehiago aztertu eta prestatu direla.

### Aro hipermodernoa: Abangoardiei gorazarre

El estudio que ha hecho la artista de las primeras vanguardias del siglo XX no es puntual o anecdótico. Le interesan las vanguardias como el momento en el que arte, educación y cambio social se ligan de un modo profundo.

### Aro dinamikoa: Estrategia eta sortzeko anbizioa

Aldi honetan, artistak gehien landu zituen «artelan osoko» proiektuak ditugu, plangintza eta diseinu konplexua lehenesten dituztenak, bai eta arriskuak eta gainezka egiten duen intuizioa ere.

# Ana Laura Aláez-etik Prototipoak-era

2021ean, erakusketa-programa hara-hona dabil, Mabi Revuelta (Bilbo, 1967) artistaren ibilbidearen berrikuspenetik, *Acromática. Una Partida Inmortal (Akromatikoa. Partida hilezkorra)* erakusketaren eskutik, Bilboko beste artista batek, Ana Laura Aláezek (Bilbo, 1964), bere jaioterrian aurkeztutako lehen erakusketa monografikora: *Todos los conciertos, todas las noches, todo vacío (Kontzertu guztiak, gau guztiak, dena hutsik)*.

Bea Espejok komisariatuta eta CA2M Dos de Mayo Arte Zentroarekin koprodukzioan, erakusketaren asmoa jatorrira itzultze moduko bat da, azken hogei urteetako lanean artistak gogoan izan dituen gaien pitzadurak jorratzeko abiapuntura itzultze bat: gorputza oinazpiko gisa, idulkia eskulturaren antzera, eskultura kantu moduan, gaua material bezala, identitatea gatazka bailitz, inpostura aukera antzo.

Erakusketaren izenburua instalazioetako batetik hartua dago, eta ekitaldi bateko arrasto berezkoa ekartzen du gogora, itxuraz emaitzarik gabeko denbora horrekin, errealizazioen eta desengainuen aurrean ilusioak eta itxaropenak aurkeztuz.



Ana Laura Aláez. *Todos los conciertos, todas las noches, todo vacío*

Bat egiten duten lengoaien ildo horri jarraituz, Mal Pelo konpainiak hasiera emango dio Zentroko arte eszenikoen denboraldiari urtarrilaren 21ean, EszenAZren baitan *On Goldberg Variations / Variations* aurkeztuz, María Muñozen eta Pep Ramisen zuzendaritza artistikoarekin. Dan Tepfer piano-jotzaile eta musikagile frantses-amerikarraren *Goldberg Variations / Variations* musika proposamenean oinarritutako ikuskizuna da, zeinak J.S. Bachen *Goldberg bariazioak* interpretatzen dituen, harmonia beraien gainean bat-batean sortutako bariazioekin konbinatuta.

Dantza, John Berger-en ahotsa, bere testu batzuk, soinu-bandako soinu manipulatu eta multifokala, zuzeneko ahotsa eta bideo-proiekzioak batera doaz Mal Pelok J.S. Bachen unibertsora egiten duen hurbiltze honetan. Koreografia-proposamenak apustu egiten du interprete bakoitzaren berezko musikaltasunaren eta taldea-espazioa erritmo-dinamika elkarrizketa erritmiko eta dinamikoaren alde.

Koreografia museo-instalazio bihurtuko da Amalia Fernándezekin otsailaren 1etik 6ra, *Expografía retrospectiva (Atzera begirako espografia)* piezaren bidez, performerrek aktibatutako egoera-objektu batzuk erakutsita; horien edukia artistaren pieza eszenikoen atzera begirakoa da.

Zazpi orduko pieza ez-jarrai honetan, sei performerrek Azkuna Zentroko hainbat espazio erabiliko dituzte instalazio formatuan zenbait obra aktibatzeko, eta jendeak bertan ibili ahal izango du (sartu eta irten), museo erraldoi bat izango baldin balitz bezala.

Azkuna Zentroaren arte eszenikoen EszenAZ denboraldiko eskaintza nagusietako bat Prototipoak, Arte Forma Berrien Nazioarteko Topaketa izango da, formatu artistiko berriak herritarrei hurbiltzeko, hiriko eguneroko alderdiak jorratzen dituzten proiektuen bidez.

Ikus-entzunezko sorkuntzaren esparruan, urtarrilaren 26an hasiko da BIdeOtik, ikus-entzunezko bestelako narratibei begira programa. Ikus-entzunezko beste narratiba batzuk aintzat hartuta, deialdi ireki bidez hautatutako hamar bat lan aurkeztuko dira, astero zortzi saiotan proiektatuta. Programa horren bidez, ikus-entzunezko lexikoa erregistratzeko eta irudikatzeko beste modu batzuekiko desberdinak diren sorkuntzak sartzeko asmoa dago. Horregatik, lanak hautatzean bereziki baloratu dira errealitatea azaltzen duen zineari buruzkoak, besteak beste, ikuspegi estetiko batetik eta ikus-entzunezko praktika garaikidetik sortuak eta esperientzia pertsonalekin eta bizitza-istorioekin lotutako gaiak jorratzen dituztenak.

Programazio horrekin batera etorriko da Gutun Zuriaren edizio berria ere. Bilboko Nazioarteko Letren Jaialdia 2021eko martxoaren 23tik 27ra egingo da, hitza sistema literariotik harago kokatuz, liburuetako orrialdeen muga gaindituta eta musika, artea, ahotsa, edizioa edo ilustrazioa bezalako diziplinekin elkarrizketa eratuta. Edizio honekin batera, *Saiakera hemen hasten da* argitalpena aurkeztuko da, aurrez aurre ezin egin izan den 2020ko ekitaldira gonbidatutako pertsonen saiakerak biltzen dituena.

2021EKO PROGRAMAZIOAK **AZ ETXEAN** PROGRAMAREKIN JARDUNGO DU, HAU DA, AZKUNA ZENTROAREN WEB PLATAFORMAREKIN, ZEINEAN HAINBAT JARDUERA PROGRAMATUKO BAITIRA ONLINE KANALEN BIDEZ.

# Mediatekak Txikiteka berria aktibatu du



Txikiteka

Mediateka BBK-k 2010eko urrian ireki zituen ateak eta orduz geroztik haurren txokoa erreferentziazko gunea izan da. Txoko honetan hainbat familiak partekatzen eta esperimentatzen dute liburuak oinarri hartuta, hainbat umeren lehenengo irakurketetarako gunea izan da, literaturaren, komikiaren edo bideo-jokoen mundura txoko honetatik gerturatu dira.

Mediatekak eboluzionatu egin du, ordea, eta txoko honetan ere aldaketak egin ditugu 0 urtetik 12 urtera artekoen sormena, esperimentazioa eta haurren eta gaztetxoen garapena sustatzeko. Txikiland espazioa eraldatu egin da eta harmailetako apalategian eta liburuen zuhaitzean dago orain bilduma, zuhaitz hori da gune honen ardatza eta erabiltzaileen autonomia sustatu nahi da. Gune malgua eta balio anitzekoa ere bada, ikasteko, taldeko lanak egiteko eta ikuspegi garaikidetik egindako kultura-programazioa garatzeko balio baitu; era berean, sormen artistikorako, ilustraziorako edo kultura digitalerako jarduerak ere izango dira, besteak beste.

Mediateka BBK-ko gainerako lekuetan bezala, Txikitekan ere beharrezkoak diren segurtasun-neurri guztiak betetzen dira eremu segurua izan dadin.



Txikiteka

## Herritarren laborategiak, berrikuntza herritarra Mediatekan

Mediateka BBK-k herritarren laborategiak sortzeko prozesua hasi du, Zentroan lankidetzarako proiektuak esperimentatzeko eta garatzeko topaguneak gaitu asmoz. Hori dela eta, Mediatekako langileak ekimen batean parte hartzen ari dira gaur egun: 'Herritarren laborategi banatuak. Berrikuntza herritarra liburutegietan eta beste kultura-erakunde batzuetan'. Programa honetan Estatuko, Latinoamerikako, Estatu Batuetako eta Portugaleko mila profesional baino gehiago ari dira parte hartzen eta Liburutegietako Laborategiak proiektuan kokatzen da; Kultura eta Kirol Ministerioaren eta Medialab Pradoren arteko lankidetza da, 2017an hasi zen eta liburutegien eta herritarren berrikuntza arloko bateratzea sustatzen du; liburutegiak topaketarako, esperimentaziorako eta sormen kolektiborako gune izateko ideia ere indartu nahi da proiektu honen bidez.

Liburutegien eta herritarren berrikuntza arloaren arteko bateratzea sustatzen du programak toki hauek topaketarako, esperimentaziorako eta taldeko ikaskuntzarako guneak izan daitezen, eta lurralde eta sektore arteko lankidetza aktibatu nahi du, hirien arteko proiektuak garatzeaz gain. Trebakuntzako eta ekimena baloratzeko lehenengo fase honen ondoren, herritarren lehenengo laborategiak sustatzeko proiektuak eta lankidetzak bilatzeko prozesua hasiko da.

Proiektu hau Mediatekaren ikuspegi berrian sartzen da, erkidego desberdinen sormenerako gune izan nahi baitu, eleanitza, diziplina anitzekoa eta malgua. XXI. mendeko liburutegietara hurbiltzen den gunea, esperientzia berriak eta harremanetarako modu berriak sortzeko, interkulturalitate gehiago duen hiriko leku publiko estalietako batean.



# FÁBdeFABek eta Yolanda Sánchezek bat egin dute dendAZ. This is Basque Design plataformarekin

dendAZ. This is Basque Design plataforman proiektu berriak sartu dira. FÁBdeFAB kolektiboak eta Yolanda Sánchez artistak bat egin dute plataforma osatzen duten bertako hogeita hamar sortzaile, diseinatzaile eta artisauekin. Atarian kokatutako dendAZ gunean, egiten dituzten produktuak eta beren proposamenak sortzeko erabiltzen dituzten prozesuak ikusi eta eros daitezke. Diseinu bakanak dira, artetik eta ekoizteko teknika berrietatik sortuak, eta artisau-lana eta sormena balioesten dute.



## FÁBdeFAB
### Fábrica de Fabricantes

Fábrica de Fabricantes (FÁBdeFAB) trebakuntzarako, fabrikazio digitalerako eta arkitekturarako kolektibo gisa sortu zen 2018an, eta Fabricio Santos, Álvaro Cosidó eta Jose Real dira bazkide fundatzaileak. Enpresak diseinu parametrikoa eta fabrikazio digitala erabiltzen ditu 3D mapak (FÁBdeFAB-en diseinua) eta Matsu eta Matsu S lanparak (Jose Realen diseinua) egiteko.

Piezak Azkuna Zentroko dendAZ saltokian daude salgai, eta iraunkortasuneko parametroei jarraiki eginda daude, ‘PLA’ izeneko plastiko termourgarria erabiltzen baita, landare-jatorrikoa, biodegradagarria eta ekologikoa. FabdeFabek eskuzko postprozesaketa egiten du, eta muntatze-lan guztia eskuz egiten da. Bilgarria enpresak berak diseinatzen eta egiten du, eta birziklatua eta pertsonalizatua da. Lanparak pieza bakanak dira, serie zenbakitu eta mugatuetan sortuak.



## Yolanda Sánchez

Yolanda Sánchez Madrilgo Unibertsitate Konplutentsean erakusketak instalatzen eta diseinatzen espezializatutako artista da, graduondokoa eta masterra dituena, eta Euskal Herriko Unibertsitateko Arte Ederretako Fakultatean lizentziaduna, zaharberritze espezialitatean (1985-1990).

Ondare historiko-artistikoaren kontserbatzaile eta zaharberritzaile gisa egin du lan, eta, orain, sorkuntza plastikoaren eta artisautzaren munduan ardaztu da, ehungintzan espezializatutako artisau-enpresa batekin eta lehengai naturaletan -hala nola zeta eta artilean-oinarritutako ekoizpenarekin. Aldi berean, zeta eta artilezko lehengaiak eta tindu naturalak ikertzen ditu, eta prozesu eta ekoizpen ekologikoetan eta jasangarrietan parte hartzen du.

Artikuluak salgai **dendaAZ** saltokian eta **dendaz.azkunazentroa.eus webgunean**



# This is Basque Design Bilbao Bizkaia Design Week 2020 barruan

Yolanda Sánchezen eta FÁBdeFAB kolektiboaren proiektuak, eta, orobat, *Acromática. Una Partida Inmortal* erakusketako diseinatzaile grafikoa den Iñigo Ordozgoitiren lana egongo dira ikusgai erakusketa-aretoan, Bilbao Bizkaia Design Week 2020 dela-eta. BiDC-ek, ekonomia garatzeko eta nazioarteko proiekziorako faktore gisa sormen-industriak sustatzeko Bilboko Udalak eta Bizkaiko Foru Aldundiak duten ekimenak, antolatuko du ekitaldia, azaroaren 19tik 26ra bitartean egingo da, eta 'Aldatuz doan mundua birdiseinatu' izango du ardatz.

Gainera, Pilar Morquillas diseinatzailearen *9xmetrocuadrado* proiektu korporatiboa erakutsiko da. German Design Award 2021 saria irabazi duena diseinu jasangarriaren kategorian.

*9xmetrocuadrado* lau mahai-zapiko edizioa da, Philippe Starckek  Azkuna Zentroaren inguruko zoladurarako sortu zuen diseinuan oinarrituta.

Mahai-zapi hauen oihalaren gramajea 260 gr-koa da. % 100 poliesterra da, eta horien ia erdia (% 45) PET birziklatua. Horrela, beste erabilera bat ematen zaio plastiko birziklatuko 117 gr-ri, oihalaren metro karratu bakoitzeko, hau da, bederatzi botila metro bakoitzeko.

Aurkezpenak azaroaren 23an (astelehena) izango dira, 18:00etatik aurrera, Kulturen Atarian, Zentroko denda den dendaz-en kanpoan.

Bizkaia beaz | EIDE EUSKAL DISEINUA | BILBAO BIZKAIA DESIGN WEEK | GERMAN DESIGN AWARD SPECIAL 2021

# Sorkuntza garaikidearen loturak, elkarrizketak eta deribak

Artistak, komisarioak, kultura-eragileak... Azkuna Zentroa - Alhóndiga Bilbaoko programazioa diziplina desberdinetako pertsonen konplizitatearen emaitza da, haiek gure proposamenak balioesten eta aberasten baitituzte, era askotako ikusleen komunitateei zuzendutako ekarpenekin. Hiruhileko honetan gure artean izango ditugun proiektuak eta pertsonak erakutsiko ditugu hemen, aurten abian jarri ditugun elkarrizketen parte direnak.



Mabi Revuelta
Artista



Susana Blas
Artista



Mario Paniego
Artista



Ivan Gómez
Artista



Leticia Paschetta
Artista



Gema Intxausti
Artista



Amparo Badiola
Artista



Néstor Lizalde
Artista



Aitor Saraiba
Artista



Susana Talayero
Artista



Oscar Gómez Mata
Az-Kidea Artista Asociado a Az artista



Sabine Groenewegen
Artista



Pernan Goñi
Artista





Sra. Polaroiska
(Alaitz Arenzana & María Ibarretxe)
Az-Kideak Artistas Asociadas a Az artistak



Aimar Arriola
Az-Kidea Investigador Asociado a Az ikertzailea



Manu Arregui
Artista


El Conde de Torrefiel (Tanya Beyeler & Pablo Gisbert)
Proiektu artistikoa


Janet Novás
Dantzaria eta koreografoa


© Xosé Abad

Mercedes Peón
Konpositorea


Iker Gómez
Dantzaria eta koreografoa


Macarena Recuerda Shepherd
Artista


Itxaso Díaz
Bideo-sortzailea


Wang-Ramirez Company (Honji Wang & Sébastien Ramirez)
Konpainia artistikoa


Josune Urrutia
Artista


Camila Téllez
Artista


Karlos Martínez B.
Artista


José Carlos Torre
Marrazkilari eta ikertzailea


Maider Aldasoro
Artista


Irati Inoriza
Artista


Sahatsa Jauregi Azkarate
Artista


FABdeFAB
This is Basque Design


Elena Aitzkoa
Artista


Miriam Isasi
Artista


Iker Vázquez
Artista


Yolanda Sánchez
This is Basque Design


Raquel Meyers & Borja Crespo
Artistak

# PROGRAMAZIOA



Susana Blas eta Mabi Revuelta. Bisita *Acromática. Una Partida Inmortal* erakusketara

ARTE GARAIKIDEA / ERAKUSKETA

**URR. 14 > URT. 24**

# Mabi Revuelta

## *Acromática. Una Partida Inmortal (Akromatikoa. Partida Hilezkorra)*

Komisarioa: Susana Blas

Tabacalera. Promoción del Arterekin (Madril) koprodukzioan

*Acromática. Una Partida Inmortal (Akromatikoa. Partida Hilezkorra)* erakusketak Mabi Revuelta artistaren ibilbidea berrikusten du, eta, aldi berean, erakusketa honetarako ekoitzitako *Acromática* azken lana du ikusgai. Arte garaikideko komisarioa eta historialaria den Susana Blasek komisariatzen du erakusketa hau.

Ibilbidea lehen espazioan hasten da (*Irekiera*), eta bertan kokatzen da *Natura hila perla beltzekin*, erakusketaren tonu poetikoa markatzen duen pieza eskultoriko berraztertua. Bigarren espazioan (*Jokoaren erdia*), *Acromática* osatzen duten hainbat obra ikusiko ditugu, historiako xake-partida artistikoenetako batean inspiratuak: Adolf Anderssen eta Lionel Kieseritzkyren artean 1851n jokatutako partida Hilezkorrean. Azken espazioan (*Partidaren amaiera*), *Denboraren lerroa* dago: artistaren ibilbidearen laburpena, xakearen lau arotan oinarritua: erromantikoa, zientifikoa, hiper-modernoa eta dinamikoa.

Mabi Revueltaren hitzetan, «*Acromática* piezen seriean, behin eta berriz itzultzen naiz jokoen unibertsora, oraingoan xakea eta haren arauen eta mugimenduen multzo berezia inspiraziotzat hartuta. Bi koloreko eremu txiki batean, munduaren ordenaren eta izaki eta gauzen patuaren hedapena ikusten dugu, izugarria eta larria. Eskulturaren, zinemaren, dantza garaikidearen, musikaren eta idazketaren bidez, jokoen erregearen kontakizuna egiten saiatzen naiz, haren mugetatik hara joz, metafora artistiko, intelektual, beliko eta bitalen bidez artikulatua».

**MABI REVUELTA.** (Bilbo, 1967) 2016ko Gure Artea saria. Arte Ederrak ikasi zituen UPV/EHUn (1990), eta harrezkero bere lana erakusten hasi zen estatuko eta nazioarteko galeria, arte-zentro, azoka eta museoetan; eta, aldi berean jardun du artista plastiko gisa, irakaskuntzan eta artearen pedagogia berriei buruzko ikerkuntzan. 2000tik 2003ra arte, New Yorken bizi izan zen, eta International Studio & Curatorial Program-en osatu zuen bere prestakuntza, Marcelino Botín Fundazioak 2003an emandako bekari esker. BBVA Fundazioaren Leonardo Beka jaso zuen 2016. urtean, Akromatikoa garatzeko, artistak Azkuna Zentroan duen erakusketa honi titulua ematen dion proiektua.

**SUSANA BLAS BRUNEL.** (Madril, 1969) Arte garaikidearen komisarioa eta historialaria. Ikus-entzunezko sorkuntzan espezializatuta, *Metrópolis* (tve2) telebistako kultura-espazioaren gidoilaria da 1999tik. Gaur egungo arteari eta feminismoei buruzko hainbat argitalpenetan idazten du, eta gai horiei buruzko hainbat ikastaro eta master eman ditu. Genero-berdintasunaren aldeko proiektuen kudeatzailearen kategorian, MAV saria (Mujeres en las Artes Visuales) jaso du (2016), eta Blanco, Negro eta Magenta saria (2017). MAV-eko Aholkularitza Kontseiluko kidea, eta Cuencako Arte Ederren Unibertsitateko ARES proiektuko ikertzailea da. Hainbat bideo- eta erakusketa-ziklo komisariatu ditu.

«ALDERDI ANTOLOGIKOAK ARTISTAREN IBILBIDEA BERRIKUSTEN DU, ETA LAU KATEGORIATAN ANTOLATZEN DU HAREN LANA, XAKEAREN HISTORIAKO AROAK DEFINITZEN DITUZTENAK ETA, ALDI BEREAN, DIZIPLINA UNIBERTSAL HORRI AURRE EGITEKO ETA JOKATZEKO LAU ARO DIRENAK».
**SUSANA BLAS**

**Urriak 14 > Urtarrilak 24**

Erakusketa Aretoa
Sarrera dohainik

**Ordutegia**

Asteartetik igandera:
11:00 - 20:00

**Bisita gidatuak** (45'):

Ostegunero: 19:00
Sarrera dohainik aurrez izena emanda: Az Info / 944 014 014
**Gehienez: 5 pertsona**

Koprodukzioa:

GOBIERNO DE ESPAÑA | MINISTERIO DE CULTURA Y DEPORTE
PROMOCIÓNDELARTE

***Acromática. Una Partida Inmortal*** **Azkuna Zentroa - Alhóndiga Bilbao eta Tabacalera Promoción del Arte (Madril) zentroen arteko koprodukzioa da. Tabacalerako La Principal aretoan izango da 2021eko otsailean.**

Laguntzailea:

bbk

**IRA. 1 › AZA. 7**

# Amparo Badiola, Gema Intxausti eta Susana Talayero

## *Scriptbarik*

ESPERIENTZIA HONEN GILTZARRIA DA ARTISTA BAKOITZAK BESTEEN LANEAN ESKU HARTZEN DUELA, ETA, HORRETARAKO, ZENBAIT ARIKETA ZEHATZ PROPOSATZEN DIRA, EGITEKO PROZESUAN BERTAN PROIEKTUA OSATU DUTENAK.



*Scriptbarik*. Sorkuntza artistikorako ateak zabalik jardunaldia 2020.

Amparo Badiola, Gema Intxausti eta Susana Talayero artisten arteko lan-esperientzia bat da *Scriptbarik*. Irailetik aurrera, Lantegia, Ideien laborategiko BAT espazioan ari dira harekin lanean, eta emaitza erakusketa-formatuan dago ikusgai, azaroaren 7ra arte.

Prozesu horretan, artistek «imajinarioak partekatu, mugak gainditu eta aukeratu dute ustekabekora iristeko ebazpen-prozesu kolektiboa eta autoretza partekatua», azaldu dute. Ildo horretatik, «gidoirik ez izatea eta erabiltzen ez diren materialak (Zentroko biltegietan jasoak) erreskatatzea abiaburutzat hartuta, esku-hartze bat egin dute espazioan, eta hiru zati dituen bideo bat (Motorzalea, Azpimundua eta Masa), non istripu batek desioari eta heriotzari buruzko ekintza komun bat jasotzen baitu», erantsi dute.

*Scriptbarik* esperimentu bat da, erritmo organikoan artikulatuz joan dena, proiektuan parte hartzen duten hiru artista egilekideen lan-praktika osatzen duten diziplinen arabera: dantza (Amparo Badiola), eskultura (Gema Intxausti) eta pintura (Susana Talayero).

Irailak 1 > Azaroak 7

**Jendearentzat irekia:**

Urriak 22 > Azaroak 7
Asteartetik larunbatera

16:30 - 20:00
Lantegia 2. BAT espazioa

Sarrera dohainik leku guztiak bete arte

**Hiru artistak espaizoan egongo dira egun hauetan:**

Azaroak 3, asteartea
Azaroak 5, osteguna

18:00 - 20:00

**AMPARO BADIOLA**
(Bilbo, 1958) Medikuntzan lizentziaduna da UPV/EHUn. Dantza-ikasketa ez-arautuak egin zituen Bilbon eta Londresen 1988tik 2003ra arte, eta Londresen bizi da. Mugimenduari buruzko ikerketarekin eta lan didaktikoarekin bateratzen du sorkuntza-lana. Azken sorkuntza eszenikoa *Palabras Invisibles* da, eta London Elixir Festival-en eta Vitoria-Gasteizko Baratza aretoan aurkeztu zuen, 2014an.

**GEMA INTXAUSTI** (Gernika-Lumo, 1966) eskulturaren, marrazkiaren eta film-narrazioaren arloan egiten du lan. UPV/EHUn Arte Ederretako ikasketak egin ondoren, Londresera joan zen bizitzera eta han Zinema ikasi zuen. Gure Artea saria eman zioten 2018an, ibilbide artistikoa aintzatesteko. Orain dela gutxi, lanak erakutsi ditu Bilboko La Taller-en (2019) eta Carreras Múgica-n (2016), eta, berriki, Entre la multitud, observando el arresto aurkeztu du Gasteizko Artium-en (2020).

**SUSANA TALAYERO**
(Bilbo, 1961). Pinturaren eta marrazkiaren inguruan egiten duen lana bideora zabaltzen du noizean behin. UPV/EHUn Arte Ederretan lizentziatu ondoren, Erromara joan zen, eta han bizi izan zen 1986tik 1996ra. Orain dela gutxi, Carreras Múgican (2019) eta Bilboko Arte Ederren Museoan (2016) erakutsi ditu lanak. Amparo Badiolarekin lankidetzan, L'occasione proiektua koordinatzen du, Bilbon topaketa publikoak egiteko ekimena. Duela gutxi, Arte Bisualen Vila de Santanyí VII. Saria jaso du, Mallorcan (2019).

**AZA. 19 2020 › OTS. 21 2021**

# Iván Gómez

## *La prospección de Kairós*

**LA PROSPECCIÓN DE KAIRÓS**, IKERKUNTZARAKO GAILU METODOLOGIKO BAT DA, 'TARTEAN' NOZIOA BIRTESTUALIZATU NAHI DUENA 'JAKINTZA-ESPAZIO' JAKIN BATEN ERAKETA GISA.



*La prospección de Kairós*. Encuentro en Lantegia 2.

*La prospección de Kairós* izenez Iván Gómez artista 2019ko ekainaz geroztik garatzen ari den arte proiektua azaroaren 19an inauguratuko da BAT espazioan, Lantegia, ideien laborategian. Ikerketarako egitura metodologiko horrek, Kapitulu izenez proposatutako hainbat lan-faseren bidez, «elkarren artean» kontzeptua berriz kokatzea du helburu, nolabaiteko «jakintza-gune» baten osatuta.

Prozesua *Sarrera* batekin hasi zen, beste artista batzuen praktikatik abiatuta 'Denkraum' kontzeptua aurkeztuz, 'pentsamendurako espazio' gisa zuen esanahia azpimarratuz.

Ondoren, *0 kapituluan*, lantalde bat sortu zen, eta ariketa-programa batetik abiatuta, 'Denkraum' praktika artistikoan sakontzeko, entsegu aktiboa jarri zuten abian.

Prozesu horren ostean, *1. kapitulua* erakusketa bat da, non hilabete hauetan ikasitakoa artikulatzen den; *2. kapituluan*, berriz, erakusketan kokatuko gara, hitzaldi-jardunaldi batzuekin, 'elkarren arteko' gaia difraktatu eta horietako ikuspegietatik irakurri ahal izateko.

Jardunaldi hauetan parte hartuko duten artista eta arte ikertzaileen artean daude, besteak beste, Juan Llano Borbolla, Aurora Fernández Polanco, Iván Flores, Oriol Fontdevila, Emma Ingala eta Bulegoa z/b.

Proiektua *3. kapituluarekin* amaitzen da; hor, aurreko kapituluak deseraikiz sortutako lagin berri bat aurkeztuko da.



**IVÁN GÓMEZ** (Irun, 1984). Arte Ederretan lizentziatu zen (UB), eta San Antonio de Los Bañosko (Kuba) Zinema Eskolan osatu zuen bere prestakuntza. Ikerketa eta Sorkuntzako masterra egin zuen UPV/EHUn, eta bertan jarraitzen du ikertzaile-lanetan. Bere piezak hainbat lekutan egon dira ikusgai, besteak beste, BilbaoArten (Bilbo), MAMM museoan (Medellin), Pärnu International Film and Video Festival-en (Tallinn), Espai Cultural Caja Madrid-en (Bartzelona), Vostell Malpartida Museoan (Caceres), La Casa Encendida-n (Madril) eta Berlin, Brusela, New York eta beste hiri batzuetan. Bitartekari gisa, zenbait tailer eta mintegi eman ditu, eta bitartekaritza-programa bat sustatzen du Bilboko Rekalde Aretoan.

**2020ko azaroak 19 > 2021eko otsailak 21**
**Asteartetik larunbatera**

16:30 - 20:00
Lantegia 2. BAT espazioa

Sarrera dohainik leku guztiak bete arte

**PROGRAMA**

**1. kapitulua (Erakusketa)**

1. LAN-TALDEA
Karen Rivas, Andrea Álvarez, Iván Ureta, Lucía Pedregal, Nieves Barrenetxea, Bernarda B. Garmendia

Irekiera eta proiektuaren aurkezpena:

**Azaroak 19, osteguna**

16:00 - 20:00
Lantegia 2. BAT espazioa

Sarrera dohainik leku guztiak bete arte

**2. kapitulua (Hitzaldiak)**

Juan Llano Borbolla, Aurora Fernádez Polanco, Iván Flores, Oriol Fontdevila, Emma Ingala, Bulegoa z/b

**Abenduak 25 eta 26**
**Asteazkena eta osteguna**

16:30 - 19:30
Bastida Aretoa

Sarrera dohainik leku guztiak bete arte

**3. kapitulua (Erakusketa)**

2. LAN-TALDEA
Konfirmatzeke

Irekiera:

**Urtarrilak 28, osteguna**
Lantegia 2. BAT espazioa

Sarrera dohainik leku guztiak bete arte

ivangomez.net

**ABE. 3 2020 › URT. 31 2021**

# Mario Paniego

## *Espacio públic(itari)o*

Komisario Berriak

> «GAUR EGUN PUBLIZITATEA HAIN DAGO HEDATUTA, EZEN EZINEZKOA BAITA EGUNEROKO BIZITZAN SORTZEN DUEN ZARATATIK URRUNTZEA. ESPAZIO PUBLIKO ETA PERTSONALAREN ZATI HANDI BAT KENTZEN DIGU. ESTIMULUZ BETETZEN GAITU ETA GEURE BURUAZ HUSTEN». **MARIO PANIEGO**



Mario Paniego artista bisual eta kontzeptualak *Espacio publicitario (espacio público /espacio publicitario)* proiektua aurkeztu du Komisario Berriak programaren esparruan, hau da, komisariotza egiten laguntzeko eta artearen munduko profesional berriak sortzen eta finkatzen laguntzeko programan.

Erakusketa-lan honek publizitateak gure bizitzan eta, bereziki, eremu publikoan izan duen gorakadaren azterketa proposatzen du. Artistak azaltzen duenez, proiektu hau garatzeko interesa sortu zitzaion «ikustean azken urteetan Bilbon nola ugaritu den publizitatea espazio publikoetan eta nola, aldiz, munduko beste hiri batzuetan murriztuz joan den, herri-ekimenei eta udal-arautegiei esker».

Zentzu horretan, *Espacio públic(itari)o* proiektuak munduko hiri batzuk hartzen ditu aztergai, eremu publikoan publizitate-erabilera hori murriztu baitute eta ikusgarritasuna eman baitiote gai honen inguruan lan egiten duten nazioarteko kolektibo eta artista batzuen jarduera artistikoari eta aktibistari, herritarren artean hausnarketa sortzeko helburuarekin: beharrezkoa al da publizitatea eremu publikoan?

Gai horren inguruan eraikitzen da Kulturen Atarian izango den erakusketaren diskurtsoa, gero Zentrotik hainbat euskarritan zabalduko dena, abendutik aurrera.

**2020ko abenduak 3 > 2021eko urtarrilak 31**

Kulturen Ataria

Sarrera dohainik

mariopaniego.com



**MARIO PANIEGO** Bilbo, 1978). Arte Ederretako lizentzia lortu zuen University of the West of England-en, eta doktoregoko ikasketak egin zituen Euskal Herriko Unibertsitatean, non Ikasketa Aurreratuen Diploma eskuratu baitzuen (Gaur egungo Artearen Pentsamenduari eta Praxiari buruzko Ikasketa Aurreratuen Diploma). Aurrerago, Diseinuaren Kudeaketako Masterra (Euskal Herriko Unibertsitatea) eta Kultura Kudeaketako Masterra (Alcalá de Henaresko unibertsitatea) egin zituen.

EUSKO JAURLARITZA — GOBIERNO VASCO
KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA SAILA — DEPARTAMENTO DE CULTURA Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA

# Pernan Goñi

## *Emakume apartak*

Ilustrazioa

Pernan Goñi artistak abenduaren 15era arte esku hartuko du Zentroaren fatxada nagusian, *Emakume apartak* izena duen bere proiektuaren hiru irudirekin; egileari jakin-mina sortzen dioten pertsonen erretratuak dira, batez ere emakumezkoenak.

Urriaren 1etik abenduaren 15era arte, *Emakume apartak* proiektuaren hiru irudirekin hartuko du parte espazio horretan. Pertsona-erretratuak dira, batez ere emakumeenak, jakin-mina eragiten baitiote autoreari. Ikerketa-prozesu baten ondoren, Pernan Goñik modu esperimentalean marrazten ditu erretratuak, artxibo fotografikoetatik abiatuta.

Hala, bere intereseko arloetan lan egiten du —feminismo, literatura, arte, zientzia, kirola eta gaurkotasun arloetan—, eta Virginia Woolf edo Hedy Lamarr bezalako pertsonaia historikoak eta Greta Thunberg-en moduko gaur egungo pertsonaia ospetsuak erretratatzen ditu. Autorearen arabera, «ikerketa pertsonal honen xede diren pertsona guztiek berritu, zirikatu edo aurre egin diote ezarritako sistemari, oso modu xume eta erabilgarrian, edo modu erradikalean. Asmoa da irizpideak nahastea, nabarmendu ez diren ahots eta jarrera gehiago sartzeko».



Pernan Goñi. *Emakume apartak*

PERNAN GOÑI ILUSTRATZAILE ETA 'GRAPHIC REORDER-AK' FEMINISMOAREN INGURUKO HAUSNARKETA PLANTEATZEN DU HIRU ERRETRATU ILUSTRATUREN BIDEZ.

**Urriak 1 > Abenduak 15**
Arrikibar Plaza (Fatxada)

pernangoni.com

@pernan

@PernanGoñi

Pernan

Pernan Goñi

# Josune Urrutia

Josune Urrutia ilustratzaileak Pernan Goñiren erreleboa hartu du Fatxada Proiektua, Diseinua, ilustrazioa eta komikia-n, bere piezarekin, zeinak gaixotasuna esperientzia gisa berpizteko banakako eta taldeko prozesuak lantzen dituen, gorputzen zaurgarritasunean oinarritutakoak. Ildo horretan sakonduz, artistak grafikoki ikertzen ditu «ziurgabetasunarekin, ikusi ezin dugun eta beldurra sortzen digun horrekin eta horren inguruan sortzen den irudimenarekin» erlazionatzeko ditugun moduak.

Ilustratzaile gisa, marrazkia interesatzen zaio, begiratzeko tresna gisa. «Marrazteak ikustetik haratago begiratzea esan nahi du», dio. Horrek ekartzen du «gauzen azterketa zehatzagoa egitea, haiekin harreman estuagoa izatea». Marraztuz, dio, «ingurunearekin beste era batera erlazionatzen gara, beste lasaitasun batekin. Behaketa-ariketa bat behar du, gure begirada, gure subjektibotasuna, doitzeko. Prozesua lagungarri zaigu esperientziaz pentsatzeko, ulertzeko, atzemateko eta integratzeko».

**JOSUNE URRUTIA** ILUSTRATZAILEARI MARRAZKIA INTERESATZEN ZAIO, BEGIRATZEKO TRESNA GISA. DIOENEZ, PROZESUA LAGUNGARRI ZAIGU ESPERIENTZIAZ PENTSATZEKO, ULERTZEKO, ATZEMATEKO ETA INTEGRATZEKO.

**2020ko abenduak 15 > 2021eko martxoak 1**

Arrikibar Plaza (Fatxada)

josunene.com

josunene

@mirardibujando


Irudia: Alejandro Nafría

**JOSUNE URRUTIA.** Artista, marrazkilari, ilustratzaile eta diseinatzaile grafiko honek interes berezia du marrazketa komunikaziorako eta sozializaziorako funtsezko baliabide gisa behar duten prozesuetan eta tresnetan: medikuntza grafikoa osasun-munduan, graphic recording-a, mapa bisualak eta kaleko marrazketa kolektiboko prozesuak. Duela gutxi beka bat izan du Angoulêmeko (Frantzia) Maison des Auteurs-en, emakumeei, arteari eta minbiziari buruz duen komiki-proiektuarekin.

Hauek dira haren argitalpenik esanguratsuenetako batzuk: *Compendio colectivo sobre cáncer* (2019), Breve diccionario enciclopédico ilustrado de *MI cáncer* (2017) eta *Así me veo* (2015).

**Josune Urrutia** artista **X Urte, X Zirriborro** ekintza artistikoaren parte da. Azkuna Zentroak joan den maiatzaren 18an ospatu zuen Zentroaren hamargarren urteurrena ekintza horrekin, eta sorkuntza bultzatzeko **Babestu** deialdian aukeratutako proiektuetako bat da. +info: 64. orr.

ARTE GARAIKIDEA / AZ-KIDEAK ARTISTAS ASOCIADAS A AZ **ABE. 1** (astr.)

# Sra. Polaroiska

## *Emakume jakintsuen kontseilua*

*Emakume jakintsuen kontseiluak*, Sra. Polaroiska talde artistikoak (Alaitz Arenzana eta Maria Ibarretxe) Az-Kideak Artistas Asociadas a Az gisa proposatutako topaketa-zikloak, bosgarren saioa egingo du.

Orain arte, lau jardunaldi egin dira, hainbat gairi buruzkoak: antropologia soziala, euskarazko poesia, euskal feminismoa edo errefuxiatuen egoera soziala, betiere ikuspegi feministatik. Saio horietan, jakintsu hauek parte hartu dute: Dolores Juliano, Argentinan jaio (1932) eta Videlaren estatu-kolpearen ondoren Bartzelonara erbesteratutako antropologo soziala; Amaia Lasa, poesia euskaraz idatzi zuen lehen emakumeetako bat; Garbiñe Mendizabal, genero-berdintasunerako aditua eta aholkularia; eta, azkenik, Luisa Menéndez, Ongi Etorri Errefuxiatuak Bizkaia plataformako ekintzailea.

Azken urteotan Sra. Polaroiskak garatu duen lan-ildoarekin bat etorriz, hau da, genero-ikuspegitik erreferenteak eta ahalduntzea sortzea ardatz gisa hartuta, *Emakume jakintsuen kontseilua* sei topaketez eratutako zikloa da, hainbat esparrutako profesionalak diren emakume helduekin egitekoa. Elkarrizketen bidez, emakume horiek beren bizi- eta lanbide-esperientziak transmititzen eta partekatzen dizkigute, eta erreferente gisa agertzen dira. Jakinduria biltzeko eta partekatzeko proposamena.




*Emakume jakintsuen kontseilua Luisa Menéndez*

**AZ-KIDEAK ARTISTAS ASOCIADAS A AZ** PROGRAMAREN BIDEZ, **SRA. POLAROISKAK** BERE SORMEN-PROZESUAREKIN JARRAITUKO DU, ERREFERENTEAK SORTUZ ETA EMAKUME HELDUEN AHALDUNTZEA ARDATZ GISA HARTUZ.

**Abenduak 1, asteartea**

18:30
Lantegia 1

Sarrera dohainik, aurrez azkunazentroa.eus webgunean izena emanda, leku guztiak bete arte

cargocollective.com/srapolaroiska

sra polaroiska

**Sra. Polaroiska, Az-Kideak Artistas Asociadas a Az** dira 2019tik. + info: 67. orr.

# Aimar Arriola, Manu Arreguirekin hizketan

## *Forma desira*

*Forma desira* Aimar Arriola komisarioak Az-Kidea Investigador Asociado a Az gisa garatzen duen ikerketa-proiektua da.

Hainbat artistarekin hitz egitea da ikerketa honen metodologia nagusia. Emaitza gisa, parte-hartzaileek elkarrizketak testu-formatuan eta ekoizpen iragankorrak egiten dituzte.

Proiektuaren lehen aurkezpen hau hitzaurre gisa pentsatuta dago, ikerketaren abiapuntuak eta asmoak partekatzeko.

Lehen gonbidatua Manu Arregui artista izango da, Estatuko ikus-entzunezkoen arloko giltzarrietako bat. Aitzindaria izan zen bideo-sorkuntzako eta eskulturako lanetan 3Dko animazioa aplikatzen, eta haren lanak gorputzaren politikei eta arauez kanpoko identitateei buruzko gogoeta du ardatz.

Aurkezpenak prozesuan dagoen elementu eszenografiko bat izango du, Dogartzi Magunagoicoechea (Bilbo, 1991) artistaren eskutik. Elementu hori behin eta berriz errepikatuko da *Forma desira* proiektuko ekintza publikoetan.



**MANU ARREGUI** (Santander, 1970). Arte Ederretako lizentziaduna da, eta haren lanak erakusketa garrantzitsuetan sartu dira. 2002an Marcelino Botín Arte Plastikoen beka lortu zuen; 2007an, Altadis saria; 2014. urtean, Arco Electrónico saria; 2015. urtean, Propuestas Vegap saria; eta, 2018an, Multiverso BBVA beka. Haren lana, besteak beste, ARTIUM, Guggenheim, MUSAC eta MNCARS museoetako bildumetan dago.

**FORMA DESIRA** LANEAN, **AIMAR ARRIOLAK** QUEER PERSPEKTIBAREN ETA ARTEAREN ARTEKO ERLAZIOA IKERTUKO DU ZENTROKO PROGRAMAZIOAREN BARRUAN.

**Abenduak 15, asteartea**

19:00

**Lantegia 1**

**Sarrera dohainik, aurrez azkunazentroa.eus webgunean izena emanda, leku guztiak bete arte**

arriolaaimar

aimar.arriola

manuarregui.com

**Aimar Arriola Az-Kidea Investigador Asociado a Az** da 2020ko apirilaz geroztik. + nfo: 66. orr.

**AZA. 10 ETA 11** (astr. eta astz.)

# Aitor Saraiba

## *Autobiografías (Autobiografiak)*

Marrazkia eta idazketa dira Aitor Saraiba artistak azaroan Mediateka BBKn ematen duen *Autobiografías* tailerraren oinarria. Marrazkilariaren arabera, helburua da «gure bizitzaren historia artikulatzea», tailerraren bi egunetan proposatuko dituen ariketen bidez, parte-hartzaile bakoitzak horiek ordenatuko baititu bere autobiografia egiteko.

Tailerrean parte hartzeko ez da beharrezkoa aurrez teknikak edo ezagutzak izatea, «zure historia kontatu nahi izatea besterik ez da behar. Ariketa sortzailea eta sendatzailea, non zu zeu izango zaren protagonista», aurreratu du Aitor Saraibak.

Aitor Saraibarekin Fatxada Proiektua, diseinua, ilustrazioa eta komikia jarri zen abian. Bere esku-hartzean, Fatxada proiekturako bakarrik egindako hiru obra berri erakutsi zituen artistak, *La otra Herencia* poema-testuekin. Orain, Zentrora itzuliko da, marrazkiaren eta hitzaren bidez bere autobiografia egin nahi duenari laguntzeko.

**AITOR SARAIBA** (Talavera de la Reina, 1983) marrazkia du oinarri, eta bere biografiari, egunerokotasunaren arteari lotzen dio, askotariko aplikazioak baliatuz: nola erakusketak hala nobela grafikoak, tartean direla zeramika, hormako interbentzioak eta ekintzak, baita argazkia, bideoa eta nobela grafikoa ere. Hainbat liburu autobiografiko argitaratu ditu, besteak beste, hauek: *El hijo del Legionario*, *Pajarillo*, *Nada más importa*, *Por el Olvido* eta *Cómo ser valiente, justo y feliz y otras cosas en la vida*.



Aitor Saraiba

HELDUENTZAT ZUZENDUTA.

**Azaroak 10 eta 11**
**Asteartea eta asteazkena**

17:30 - 20:00
Mediateka BBK. TK202

25€ / 20€ Az Txartelarekin
Sarrerak: Az Info eta azkunazentroa.eus

aitorsaraiba.com

@aitorsaraiba

# Leticia Paschetta

## *Paisaia ludiko zuria. Laztanen jokoa (Caresses Playscapes)*

Mediateka BBKren lehen solairuan paratutako Leticia Paschettaren *Paisaia ludiko zuria. Laztanen jokoa* instalazioak artearen, paisaiaren eta jolasaren arteko mugak aztertzen ditu, espazioaren bidez esperientzia bizia sortzeko, non zentzu artistikoa murgiltze-ekintzatik sortzen baita, eta paisaia, aukera-mundu, esanahi, sentsazio eta askatasun-estimulu infinitu bihurtzen.

Obrak bat egiten du bera zeharkatzen duenarekin, mugak disolbatu, eta atzealdea eta figura urtu egiten dira esperientzia hutsa den ‘zuri gaineko zuri’ batean.

Astelehenetik larunbatera

**10:00-20:00**
**Mediateka BBK. 1. solairua**

**Sarrera dohainik**

FITXA ARTISTIKOA

**Ideia eta garapena**:
Leticia Paschetta
**Egiturazko eta eraikuntzako garapena**:
José Cavallero
**Laguntzailea**:
Soledad Grossi
**Eraikuntza koordinatzea**:
Natascha Gergoff Bengoa eta Guillermo Weiskal

paisajesludicos.com

# Néstor Lizalde

## *Akelarre elektrikoa*

Interbentzio artistikoa terrazan

*Akelarre elektrikoak*, Nestor Lizalde artistaren arte elektronikoaren instalazioak, terraza argiztatzen du arratsaldero, adreiluzko 44 arkuz osatutako espazioaren arkitekturan egindako esku-hartzearen bidez.

Artistaren hitzetan, «eguzkia ostenduta, argiak azalduko dira iluntasunaren babesean. Argi-matrizeak mugiarazi egingo du egitura, errituetarako espazio gisa paratutako jatorrizko 44 arkuk eratutako atala. Itzalek eta distira dirdaitsuek dantza egingo dute, gauaren mihisean formak zizelkatzen», aurreratu du Nestor Lizaldek bere piezaz.

Egunero

**20:00 - 23:00**
**Terraza**

**Sarrera dohainik**

**Instalazioa bisitatzea: kontsultatu azkunazentroa.eus webgunean**

nestorlizalde.com

**AZA. 2, 4 ETA 6** (astl., astz. eta ostr.)

# Mitusu, haur eta gazteentzako antzerki-aretoa

**MITUSU** 20 URTETIK GORAKO IBILBIDEA DUEN KULTURA– ETA HEZKUNTZA–PROIEKTUA DA, ETA HAUR ETA GAZTEEN ETA ARTE ESZENIKOEN ARTEKO HARREMAN GARRANTZITSUA ETA JARRAITUA BULTZATZEA DU XEDE.



El Perro Azul. *Superheroia*



Marie de Jongh. *Ikimilikiliklik*



Yarleku. *Etxerik txikiena*

Azaroan eta abenduan, Mitusu eta Azkuna Zentroak egindako proiektu baten bidez, berriz suspertu nahi dugu eskoletako ikusleen eta arte eszenikoen arteko elkarketa, lehen seihilekoan bertan behera utzi behar izan genituen ikuskizunak eta maila artistiko handiko beste batzuk berriro programatzen. Proposamen hau egungo egoerara egokituta dago, eta haurrei eta gazteei lagundu nahi die, kulturarekin, euskararekin eta komunitateko bizitzarekin bat egiten.

Hala, ziklo osoa Auditorioan egingo da, eta Ataritik izango da sarrera, ikusleen zirkulazio arina bermatzeko. Protokolo bakarra ezarri da antzerkira joateko, ikastetxe bakoitzak finkatutako neurri espezifikoak aintzat hartuta.

Programaturiko hiru saioak Lehen Hezkuntzako lehen mailatik seigarrenera bitarteko ikusleei zuzenduta daude.

**Azaroak, 2, 4 eta 6**
**Astelehena, asteazkena eta ostirala**

**Ikastetxeekin itundua.**
**Lehen Hezkuntza**

## PROGRAMA

**Azaroak 2, astelehena**
**9:30 eta 11:30 / 55'**

### El Perro Azul
***Superheroia***

Antzerki bisuala eta maskarak
Lehen Hezkuntzako 2. eta 3. mailak
Euskara

Maskaren eta txotxongiloen ikuskizun berri honetan, interprete batek bost pertsonaia hezurmamitzen ditu. Haien bidez, Superheroiak galdera botatzen du, errealitatearen eta fikzioaren artean, ea nor den nor. Jende guztiak baitu enigma bat eta superheroi bat baitarama barruan.

**Azaroak 4, asteazkena**
**9:30 eta 11:30 / 55'**

### Marie de Jongh
***Ikimilikiliklik***

Antzerki bisuala eta musikala
Hartzaileak: Lehen Hezkuntzako 5. eta 6. mailak
Euskara

«Txirristi mirristi, gerrena plat, olio zopa, kikili salda, urrup, edan edo klik, ikimilikiliklik»… hala kantatzen zuen Mikel Laboa euskal kantautoreak, denok sorgin bat irudikatzen genuen bitartean. Ikuskizun honetako protagonista neskato bat da, azkenean sorgin bihurtzen dena, baina ez da protagonista bakarra, hitza ere bai baita protagonista, ezinbesteko elementu dramatikoa. Feten 2020 saria espazio eszeniko onenari.

**Azaroak 6, ostirala**
**9:30 eta 11:30 / 55'**

### Yarleku
***Etxerik txikiena***

Antzerki bisuala
Hartzaileak: Lehen Hezkuntzako 1. eta 2. mailak
Euskara

Haur errefuxiatuek beren jatorrizko herria utzi ondoren izaten duten ziurgabetasuna lantzen du ikuskizun honek. Deserrotzea eta egoera ahulean dauden pertsonen artean sortzen diren loturen garrantzia jorratzen ditu lanak. Eva Azpilikuetak FETEN 2019 saria irabazi zuen, emakumezkoen interpretazio onenarengatik. Zuzendariak, Rosa Díazek, Haur eta Gazteentzako Arte Eszenikoen 2011ko Sari Nazionala irabazi zuen.

# Iker Gómez

## *Un día Cisne en el Teatro*

**NOWHERE THEATER | CÍA. DE DANZA IKER GÓMEZ** KONPAINIAREN LAN-ARDATZA DANTZA BISTARATZEKO ETA DANTZARA HURBILTZEKO PROIEKTUAK SORTZEA DA ETA, OROBAT, DANTZAREN BIDEZ SOR DAITEKEEN EZAGUTZA IZUGARRIA ZABALTZEA.



*Un día Cisne en el Teatro*

Iker Gómez euskal koreografoak *Un día Cisne en el Teatro* aurkeztuko du, dantzaren bidez gizarte balioak eta bizikidetza sustatzen dituen proiektu eszenikoa. Pieza hau ‘Cisne proiektuaren’ barruan dago; teknologia berriak publiko-komunitateekin konektatzeko tresna pedagogiko gisa erabiltzen dituen lan berritzailea da.

Nowhere Theater | Cía. de Danza Iker Gómez konpainiak garatu du proiektua, irakasle espezializatu talde batekin batera, eta hiru zati ditu: eskola-komunitateari zuzendutako dantza eta sormen tailerra, koreografia-erakusketa, eta Web 2.0ren bidez online tresna pedagogiko bat aurkeztea, dantza bistaratzeko eta ikusle orori hurbiltzeko helburuarekin.

*Un día Cisne en el Teatro* hiru zatitan banatutako tailer-ikuskizun formatuan garatuko da, ikusleen komunitate ezberdinek aktiboki parte hartuz. Alde batetik, proiektuaren 2.0 webgunea, dantzaren inguruko edukiak eta joko interaktiboak eskuratzeko aukera ematen duena. Bestetik, mugimenduaren praktika eta memoria koreografikoa, dantzaren bidez sormena garatzeko abiapuntu gisa.
Atal honetan, artistak koreografia zehatz bat ikastera gonbidatzen ditu parte hartzaileak, memoria koreografikoaren kontzeptuarekiko sarrera gisa. Eta hirugarrena, *Un día Cisne en el Teatro* antzezlana agertokian antzeztean zentratua, entzuleen, piezako interpreteen eta koreografoaren arteko solasaldiarekin batera.

Ikuskizun pedagogikoa, berritzailea eta egungo garaietara egokitua.



**NOWHERE THEATER | Cía. de Danza Iker Gómez:** 2007an eratua, sorreraz geroztik konpainiak iraupen luzeko sei ekoizpen eszeniko egin ditu guztira. Ekoizpen horietako hiru Antzerki Alternatiboen RED Sareko Dantza Zirkuitu Nazionalerako hautatu izan dituzte, eta horri esker Konpainiaren lana egungo panorama eszenikoko garrantzitsuenetako bat da. Konpainiak hainbat jaialdi garrantzitsutan hartu du parte, hala nola, Temporada Alta, BAD jaialdia, MOV-s jaialdia, LOLA jaialdia eta EN-tránsito jaialdia, baita nazioarteko zenbait herrialdetan ere. Duela bost urtetik, konpainiaren lan-ardatza dantza bistaratzeko eta dantzara hurbiltzeko proiektuak sortzea da, orobat dantzaren bidez sor daitekeen ezagutza izugarria zabaltzea.

**Azaroak 25 eta 26**
**Asteazkena eta osteguna**
Ikastetxeekin itundua

**Azaroak 26, osteguna**
19:00h
Auditorioa
15€ / 12€ Az Txartelarekin
Sarrerak: Az Info eta azkunazentroa.eus

**FITXA ARTISTIKOA**

**Jatorrizko ideia eta koreografia**: Iker Gómez
**Dantzariak**: Rubén Cobas eta Xana Llaneza
**Teknikaria**: David Sánchez
**Web 2.0 diseinua**: Digital Video Dance Art

danza.ikergomez.es

# Wang-Ramirez Company

## *W.A.M. - We are Monchichi*

Dantzaldia. La FuNdicIOn-ren programa bat

**W.A.M.** FAMILIENTZAKO EKOIZPENA DA —7 URTETIK GORAKO IKUSLEENTZAT—, UMOREZ LANTZEN BAITITU GURE IDENTITATE ANITZAK ETA BESTEEK NOLA ALDATZEN DITUZTEN. DANTZA GARAIKIDEAREN BIDEZ ETA HIP HOPAREN ERRITMOAN EGITEN DU.



Wang-Ramirez Company. *W.A.M. - We are Monchichi*

Shihiya Peng Taiwanen jaio zen, baina Parisen bizi da. Marco di Nardo Napolin jaio eta Berlinen bizi da. Zelan egon gaitezke elkarrekin denak elkarrengandik urrun egotera bultzarazten bagaitu? Harresiz inguratuta egonik, zelan antzeman dezakegu bestea? Ze hizkuntz aukeratu behar dugu? Zelan erreakzionatu dezakegu estereotipo kultural mordoaren aurrean? Zer ote da loturez eta konexioz, pitzadurez eta fusioz egindako dantza hau? Katuaren eta saguaren dantza da, elkarren kontrako indarrak esploratzen dituen dantza. Hemen gorputzak ironia limurtu nahian dabiltza, lakrikun jokatzen dute pozaren desioarekin, malenkoniarenarekin… Shihya Peng eta Marco di Nardo ispilu distortsionatu bi bihurtzen dira, uste genituen baino askoz gauza gehiago desestaliz… Elkarri mugiarazten diote, hegan egiten dute, erori egiten dira, elkar ateratzen dute bere onetik, eta gero altxatu eta elkarrekin dabiltza…

*W.A.M.* alegia bat da, isilpeko istorio bat, ikuspegi unibertsaleko dantza bat, sekuentziatan irudikatua eta testu-flash batzuek lagunduta (Fabrice Melquiotek testuak idatzi eta dramaturgian ere kolaboratu zuen). Mugimendu bakoitzarekin, jauzi eta jazarpen bakoitzarekin, dantzariek beren umezaroko memorian bilatzen dute elkarrekin edo besteekin bizitzeko herrialdea. Harmonia aurkitzeko gudu-dantza bat dugu.

Dantzaldiak, La Fundición-ek antolatzen duen Nazioarteko Dantza Jaialdiak, jende guztiak ikusteko moduko pieza hau aurkeztuko du Azkuna Zentroan, mundu osoko audientzien ikusgai egon ondoren.



**HONJI WANG.** Dantzari, koreografo eta zuzendari artistiko aleman-korearra. Dantza garaikidea eta hip hopa modu bereziki organikoan konbinatzen ditu. 2010ean izan zuen lehen lankidetza Sébastien Ramirezekin, AP15 bikotea sortu baitzuen harekin. Handik gutxira, Wang Ramirez konpainiaren zuzendaritza ko-artistikoa hartu zuen bere gain, eta, ordutik hona, bikoteak eskala handiko lanak sortu ditu, eta dantza garaikidearen eszenan nabarmentzea lortu du.



**SÉBASTIEN RAMIREZ.** Dantzari frantses-espainiarra, koreografoa eta zuzendari artistikoa.Aire-lanaren erabileran eta manipulazio koreografikoaren garapenean espezializatuta dago. 2007an bere Konpainia sortu zuen Perpignanen. Hainbat sari irabazi ditu, eta Honji Wangekin partekatzen du Konpainiaren zuzendaritza artistikoa. Ramirez artista elkartu izendatu zuten 2014. urtean Perpignango Théâtre de l'Archipel-en eta 2018an Parisko Théâtre de la Ville-n.

Abenduak 10, osteguna

**19:00. Auditorioa**

**15€ / 12€ Az Txartelarekin**

**10€ / 8€ Az Txartelarekin (18 urte baino gutxiago eta 65 urte baino gehiago)**
**Sarrerak: Az Info eta azkunazentroa.eus**

FITXA ARTISTIKOA

**Zuzendaritza artistikoa, sorkuntza, koreografia:** Honji Wang & Sébastien Ramirez | **Hauekin batera:** Marco di Nardo & Shihya Peng | **Testu-moldaketa eta aktore-zuzendaritza:** Fabrice Melquiot | **Jatorrizko dramaturgia:** Vincent Rafis | **Musika-konposizioa:** Ilia Koutchoukov aka Everydayz | **Argi-diseinua:** Cyril Mulon | **Eszenografia:** Ida Ravn | **Jantziak:** Honji Wang | **Beste musika batzuk:** Bachar Mar-Khalifé / Balcoon, Carlos Gardel, Alva Noto, Nick Cave & Warren Ellis | **Musika-moldaketak:** Fabien Biron | **Ahots eta soinu grabaketak:** Clément Aubry | **Teknikari burua:** Guillaume Giraudo | **Ekoizpen exekutiboa:** Company Wang Ramirez, Clash66 | **Ekoizle kideak:** Théâtre de la Ville, Paris; Scène Nationale d'Albi | **We are Monchichi-ren koprodukzioa marko honetan gertatu da:** European Creative Pole - DRAC Auvergne-Rhône-Alpes / Pôle Danse de Lyon (Biennale de la Danse + Maison de la Danse) + Sorkuntza-egonaldia Lyonen | **Sorkuntza-egonaldiak:** L'Archipel, Scène Nationale de Perpignan / La Villette / Artist residencies Théâtre de la Ville / Les Abbesses | **Hauen babesarekin:** Regional Cultural Affairs Directorate Occitanie / Regional Council Occitanie Pyrénées-Méditerranée / County Council Pyrénées Orientales | **Esker onak:** Manon Martin for the Melquiot - Wang Ramirez artistic introduction

wangramirez.com

21. edizioa DANTZALDIA La FuNdicIOn

# Janet Novás eta Mercedes Peón

## *Mercedes máis eu*

**MERCEDES MÁIS EU**
BI ARTISTEK «BEREN DANTZAREN ETA MUSIKAREN» ARTEAN DAUDEN HARREMAN PARTIKULARREI BURUZ EGINDAKO ESPLORAZIOAREN EMAITZA DA.



*Mercedes máis eu*

Janet Novás artista eta Mercedes Peón musikagilea lankidetzan aritu dira guztiongan sentikorra denari buruzko proposamen eszeniko ezti honetan. Elkarrekin, euren «dantzaren eta musikaren» artean dauden eta finkatzen diren harreman partikularrak aztertu dituzte.

Instrumentuen, oroitzapenen, abestien eta dantzen artean latentzia-egoera desberdinetako kontzeptuak azaleratzen dira. Eduki sozio-politiko handiko horietako batzuk materialetan agertzen dira, musika 'objektuetatik' hasi eta dantza edo biografia objektuetara; kontzeptu somatikoak edo esperientzia kuantikoak diren beste batzuk pultsu, erritmo eta tonuetan, ahots eta dinamiketan, isiluneetan, formetan agertzen dira. *Mercedes máis eu* kolektiboari begira dago, inondik ere arketipikoak ez diren ikuspegi eta sentsibilitateetatik. Pieza, femeninoan, irudi oroitarazlez eta koadroz zatitutako dantza-musika hibridoa da, arkitektura edo esparru ezberdinetan bizitzeko aukera emanez, eszena arlokoetatik museo arlokoak direnetara bitartean.

Sortzaileen arabera, «*Mercedes máis eu* definitzeko desiraz hitz egin behar da ezinbestean. Desira horrek arrazoiak aurkitzen ditu lehen topaketatik harago proiektatzeko, eta ber-elkartzea, elkarrizketa, esperientzia, afektua eta abar bilakatzeko. Proiektua zeharkatuz eguneratzen den desira horretan jarraitzea topaketa bakoitzean gertatzen zaiguna azpimarratzea da. Baina, era berean, bada geurea duguna eta guztiona dena miatzea ere, subjektuaz eta lurraldeaz harago dagoena. Desioarekin eguneratzen den memoria edo artxibo bizi hori, geure immanentziatik bereizten gaituena».

---

**JANET NOVÁS**. Dantzaria, performerra, koreografoa eta irakaslea. Madril, Brusela eta Berlinen arteko dantza garaikidean hezia, haren lana behaketan eta esperientzian oinarrituta eraikia da, bere gorputzarekiko elkarrizketa lan tresna nagusitzat erabilita, hizkuntza propioaren alde apustu eginez, bere lanen ezaugarri diren eduki emozionala eta sinpletasun estetikoa moldatuz. Gaur egun lankidetzan aritzen da Pablo Esbert edo Mercedes Peón eta Zap&Buj diseinatzaileen moduko artistekin; azken horiekin sortu zuen *Imaginé cinco cuerpos y ninguno era el mío*, lanik berriena.

**MERCEDES PEÓN.** Konpositorea, kantaria eta instrumentista galiziarra, musika tradizionala hainbat tresna teknologikorekin lantzen duena. Galiziako tradizioan 25 urtez sakondu ondoren, Peónek 2000. urtean grabatu zuen bere lehen albuma bakarlari gisa, *Isué*. Ondoren, *Ajrú* (2003), *Sihá* (2007), *Sós* (2011) eta *Deixaas* (2018) etorri ziren, eta Peónek hainbat sari irabazi zituzten bere lanengatik. Ibilbide horri esker, XXI. mendearen hasierako Galiziako artistarik garrantzitsuenetako bat da.

---

**Abendua 17, osteguna**

**19:00**
**Auditorioa**

**15€ / 12€ con Tarjeta Az**
**Sarrerak: Az Info eta azkunazentroa.eus**

FITXA ARTISTIKOA

**Zuzendaria:**
Janet Novás
**Sorkuntza eta interpretazioa:**
Mercedes Peón eta Janet Novás
**Laguntza artistikoa:**
Ricardo Santana eta Pablo Esbert
**Musika-konposizioa, kontzeptua eta letrak:**
Mercedes Peón
**Mugimenduko laguntza:**
Victoria P. Miranda
**Argiztapenaren diseinua:**
Cristina Bolívar
**Soinua:**
Ezequiel Orol
**Jantziak:**
Juanita Rodríguez
**Produkzioa:**
Adriana Reyes
**Koprodukzioa:**
Comunidad de Madrid
**Laguntzaileak:**
Centro Danza Canal, Graner Centro de Creació, Sede Losdedae

janetnovas.com / @Janetnovass

mercedespeon.gal

# El Conde de Torrefiel

## *Los protagonistas (Protagonistak)*

**EL CONDE DE TORREFIEL**-EN HIZKUNTZA PLASTIKOAK HITZA, IRUDIA ETA DANTZA BATZEN DITUEN UNIBERTSO BISUAL BATERA DARAMA PUBLIKOA.



Elconde de Torrefiel. *Los protagonistas*

Pablo Gisbert eta Tanya Beyele buru dituen El Conde de Torrefiel proiektu artistikoak, haurrentzako euren lehen proposamena aurkeztu du: *Los protagonistas (Protagonistak)*. Hitzak, irudiak eta dantzak bat egiten duten unibertso bisualaren baitan, sorkuntza berri hau eszenografia batetik egindako ibilbidea da, audio formatuko testuak gidatzen duena; audio horretan, sentsibilitate txikienak konkistatzea da asmoa, gaur egun euren mundua egituratzen duten elementuak eta erabilerak aintzat hartuta.

Mintzaira plastikoaren eta soinu-giroaren bitartez, ikusle esploratzaileak beste mundu honetako protagonista sentituko bere burua; norbere gorputzaren pertzepzioa eta bakoitzaren irudia jolas bihurtzen diren bidaia bizitzeko asmatuta dago. Horren harira, *Los protagonistas* lanean gurarikrik, asmorik eta doktrinarik gabeko esperientzia estetikoa eskaintzen da.

Irudimenaren eta konplizitatearen balioa dira pieza berri horren ardatza. Horretan, norbere gorputzak instalazioekiko duen pertzepzio-esperientzia nabarmentzen da, fantasia-giroetan zehar egindako ibilbide eszeniko baten bidez, non pertsona bakoitzaren pertzepzioa inguruan duen espazioak lausotzen duen. Mundu ezinezko horren erraietan barrena egindako bidaiak dei egiten die sartu diren guztiei parte har dezaten eta parte hartuko duten talde txikian manten daitezen, bideo-joko analogiko batean bezala. Leku ezkutu miragarri baten bila ari den esploratzaileen espedizio batean bezala, gauza gutxi izango dute eskura: tresna gutxi batzuk eta euren irudimen-gaitasuna, labirinto eszenografiko baten barruan.

Imagen: Estudio Juan Codina



**EL CONDE DE TORREFIEL. PABLO GISBERTEK** eta **TANYA BEYELEK** zuzendutako proiektu artistikoa. Horien pieza eszenikoetako estetika bisuala eta testuala literaturaren, arte plastikoen eta koreografiaren arteko kulunkan sortu da. Konpainiak 'Orainaren entsegu' zabal moduan eratzen ditu piezak, hainbat emanalditan banatuta. Eszena denbora-izaera batetik abiatuta lantzen duten proposamenak dira, XXI. mendeak proposatzen dituen kontu ezezagunei eta horiek agertokian irudikatzeko moduei erantzuten dieten hipotesiak formulatuz.

**Abenduak 27 eta 28**
**Igandea eta astelehena**

**Lantegia 1**

**15€ / 12€ Az Txartelarekin**

**9€ / 7€ Az Txartelarekin (14 urte baino gutxiago eta 65 urte baino gehiago)**

**Sarrerak: Az Info eta azkunazentroa.eus**

## FAMILIENTZAT ZUZENDUTA

### FITXA ARTISTIKOA

**Ideia eta sorkuntza:** El Conde de Torrefiel

**Zuzendaritza eta testua:** Tanya Beyeler eta Pablo Gisbert

**Eszenografia eta jantziak:** María Alejandre

**Argien diseinua:** Ana Rovira

**Soinuaren diseinua:** Adolfo García

**Zuzendaritza teknikoa:** Isaac Torres

**Administrazioa, kudeaketa eta produkzioa:** Haizea Arrizabalaga

**Koprodukzioa:** Teatre Lliure de Barcelona / FOG - Triennalle dell'Arte di Milano / LU.CA - Teatro Luis de Camões, Lisboa / Azkuna Zentroa - Alhóndiga Bilbao, Bilbao, Teatro, Théâtre Grütli & Festival La Batîe, Ginebra, Teatri di Sardegna, Cagliari

**Laguntzaileak:** ICEC - Generalitat de Catalunya, Graner - centro de creación de danza y artes vivas de Barcelona

elcondedetorrefiel.com

# Macarena Recuerda Shepherd

## *¡AY! ¡YA!*

> «GURE BEGIAK EZ DIRA GERTATZEN DEN GUZTIA GRABATZEN DUTEN BIDEO-KAMERAK; AITZITIK, GURE GARUNA DA INTERPRETATU ETA BERREGITEN DUENA ZENTZUMENEK EMATEN DIGUTEN INFORMAZIOA».



Tristan Pérez-Martin: *¡AY!¡YA!*

Macarena Recuerda Shepherd-ek *¡AY! ¡YA!* aurkeztuko du familiei zuzendutako dantza performatiboko obra. Irudimenak iradokita edo ikusmenaren engainuak eraginda, errealitatea hainbat modutan hautematera daraman ilusioa.

*¡AY! ¡YA!* begiradari buruzko ariketa da. Pertsona bakoitzak bere buruaz duen irudia beste irudi bat bihurtzen denean sortzen den ilusio hori biderkatu egiten da edo forma ezinezkoak hartzen ditu. Hainbat gorputz-adar dituzten gorputzak, osatugabeak, eraldagarriak eta moldagarriak.

Artistak azaltzen duenez, «ilusioak, efektu horrek agerian uzten du gure begiak ez direla gertatzen den guztia grabatzen duten bideo-kamerak; aitzitik, gure garuna da interpretatu eta berregiten duena zentzumenek ematen diguten informazioa».



**MACARENA RECUERDA SHEPHERD.** Artista bisuala eta dantzaria. Hainbat proiektu egin ditu Txalo Toloza, Amalia, Fernández, Amanda Pola eta Vicente Arlandis artistekin elkarlanean. 2008an sortzaile berrien Colectivo Estraperlo plataforma sortu zuen. Hona hemen haren lanak: Haren piezak: *That's the story of my life* (2010), *Greenwich Art Show* (2012), *Whose are those eyes* (2013), *El Experimento Ganzfeld* (2015), *Collage y Acción* (2016), *¡AY! ¡YA!* (2018).

**Abenduak 29 eta 30**
**Asteartea eta asteazkena**

**Lantegia 1**

**12€ / 10€ Az Txartelarekin**

**9€ / 7€ Az Txartelarekin (14 urte baino gutxiago eta 65 urte baino gehiago)**
**Sarrerak: Az Info eta azkunazentroa.eus**

## FAMILIENTZAT ZUZENDUTA

### FITXA ARTISTIKOA

**Antzezleak**: Idurre Azkue eta Macarena Recuerda Shepherd | **Egileak**: Idurre Azkue, Alberto de la Hoz, Macarena Recuerda Shepherd, Sofía Asencioren laguntzaz | **Zuzendaria**: Macarena Recuerda Shepherd | **Eszenografia**: Macarena Recuerda Shepherd | **Jantziak**: H-intercalada | **Musika (Soinu-banda)**: Alberto de la Hoz | **Argiak**: Conrado Parodi | **Ekoizpena**: ANTIC TEATRE | **Laguntzaileak**: Eusko Jaurlaritza eta Kataluniako Generalitat-Aren Kultura Departamentua | **Lankideak**: GREC Festival de Barcelona, Festival BAD de Bilbao, El Graner - Mercat de les Flors, Sala Baratza, La Fundición Bilbao eta Histeriak | PYRENART mugaz gaindiko lankidetza-proiektuaren proiektu onuraduna, INTERREG V-A Espainia-Frantzia-Andorra programaren barruan, POCTEFA 2014 2020 - Eskualdeen Garapeneko Europako Funtsa (EGEF)

**macarenarecuerdashepherd.com**

DANZA A-ESCENA

Red de Teatros, Auditorios, Circuitos y Festivales

GOBIERNO DE ESPAÑA | MINISTERIO DE CULTURA Y DEPORTE | inaem




*Manhattan* (1979)

Azaroak 4 > Abenduak 17
Asteazkenak eta ostegunak

Golem Alhóndiga Zinemak

5€ / 4€ Az Txartelarekin
Sarrerak: Golem Alhóndiga Zinemako txarteldegian eta golem.es

# Zinemaren historiako 50 harribitxi (II. zatia)

*Zinemaren historiako 50 harribitxi* zikloaren bigarren zatia hastera doa zinematografiako funtsezko arteetako bat ardatz hartuta: muntaia. Orain arte zuzendaritza, gidoia, interpretazioa, musika-zuzendaritza edo argazkiagatik 'ahaztezinak' diren izenburuak programatu dira, baina bigarren zati honetan emaitza ahaztezina izan dadin muntaia onen transzendentzia bistaratu nahi da, aurreko izenburu guztien muntaia ere bikaina zen arren. Muntaia zinematografikoan nabarmendu diren hainbat emakumeren lana bistaratuko da, gainera.

Beti egon dira hamaika arrazoi Stagecoach ikusteko; John Fordek zuzendu zuen, baina oraingo honetan Dorothy Spencerri esker sartu da programan, muntaia egin baitzuen Otho Loveringekin batera, lau aldiz izendatu zuten Oscar sarirako eta Elia Kazan, Henry Hathaway, Edward Dmytryk edo Alfred Hitchcockentzako muntatu dizuten filmak daude bere curriculumean, besteak beste.

Anne Bauchensen zeregina ere nabarmena da, script girl figura 'asmatu' baitzuen Hollywood mutuan eta muntaia-mahaira igaro zen Cecil B. DeMillerekin lankidetzan aritzeko *The Greatest Show on Earth* (1952) lanean. Eta ezin ahaztu Susan E. Morse, Woody Allenek zuzendutako filmik hoberenetako muntatzailea, hasi *Manhattan*-ekin (1979) eta *Celebrity* (1998) arte, baita *Hannah and Her Sisters (*1986) ere, zeinarekin Akademiaren sari baterako izendatu zuten.

Agnès Guillemot, *Band à part* (1964) filmaren muntatzailea; Jean-Luc Godardek zuzendu zuen filma eta Anna Karina izan zen protagonista; honen bidez Zinematekak bere ibilbide zabala gogoratu nahi du. Ibilbide honetan Marcel Moreauren profesionaltasuna ere nabarmendu da, Jacques Tatik zuzendutako lehenengo filmen muntatzailea izan zen eta komedia haiek eszenaratze onean adina oinarritzen dira muntaia zehatzean, esaterako, *Jour de fête* (1949).

Peter Przygoddak *Der Himmel über Berlin* (1987) filmerako egindako muntaia ere ekarri dugu, film hori Wim Wendersek zuzendu zuen. Anthony Gibbs eragin handiko muntatzaile ingelesa izan zen eta Tony Richardsonek zuzendutako *Mademoiselle (*1966) programatu dugu; Marguerite Durasena da gidoia.

*The shadow of a doubt* (1943) lanean Alfred Hitchcockek irudietan sintetizatu zituen argumentu aztoragarriak Milton Carruth maisuari esker, zeinaren ibilbidean Universaleko 1930eko hamarkadako beldurrezko film gogoangarriak dauden.

*Zinemaren historiako 50 harribitxi (II. zatia)* da, oraingoz, zazpigarren artearen ekoizpenean zehar egindako ibilbidearen azken urratsa.

# ZINEMAREN HISTORIAKO 50 HARRIBITXI (II. ZATIA) PROGRAMA

## Manhattan (1979)

**Azaroak 4, asteazkena / 17:30**
**Azaroak 5, osteguna / 19:30**



Isaac Davis New Yorkeko idazleak maite ez duen 17 urteko neska-laguna du, eta emazte lesbiana ohi bat ere badu, bere eskuez ito nahiko lukeena, haren liburu berrian ezkontideen intimitateak azaltzeagatik. Egoera areago zailduko da Mary ezagutzen duenean, bere lagunik onenaren maitale ederra, erabat maiteminduko baita hartaz.

96' / Estatu Batuak
Z: Woody Allen
A: Woody Allen, Diane Keaton, Mariel Hemingway, Michael Murphy, Meryl Streep, Anne Byrne, Karen Ludwig

## Stagecoach (1939)

Diligentzia

**Azaroak 25, asteazkena / 17:30**
**Azaroak 26, osteguna / 19:30**



Ringo Kid-ek eta bere adiskide xelebreek bidaia luze, gogor eta arriskutsu bati ekin diote. Hala, ezaugarri bereziak dituzten hainbat pertsonaiaren artean, hauek ezagutuko ditugu: Dallas, herritik kanporatutako prostituta; Boone, mediku alkoholizatua; Gatewood, bankari harroa; eta haurdun dagoen Mallory andrea. Bidaiarien arteko harremanak ez dira adiskidantzazkoak, eta Tontotik Lordsburgerako bidaia gehiago korapilatuko da lautada erdian apatxeek konboiari eraso egiten diotenean.

99' / Estatu Batuak
Z: John Ford
A: John Wayne, Claire Trevor, Thomas Mitchell, Andy Devine, George Bancroft, Donald Meek, Louise Platt

## Bande á part (1964)

Aparteko banda

**Abenduak 2, asteazkena / 17:30**
**Abenduak 3, osteguna / 19:30**



Diru-kopuru handia erraz eskuratzeko aukera berri baten bila dabilela, Arthur-ek Franz laguna konbentzitu du Odileren –ingeleseko eskolako kide baten– izebaren etxean lapurreta egiteko. Arthur-ek liluratuta, Odilek plana eskuratzen du. Hala ere, Arthur-ek, bizitza legez kanpo bilatzera beharturik, lapurreta planifikatzen du; taldeko beste bi kideek, berriz, joko bat balitz bezala hartzen dute sarekada, eta horrek, azkenean, loturak estutzera eramaten ditu.

95' / Frantzia
Z: Jean-Luc Godard
A: Anna Karina, Claude Brasseur, Sami Frey, Louisa Colpeyn, Chantal Darget, Ernest Menzer

## Shadow of a doubt (1943)

Zalantza baten itzala

**Abenduak 9, asteazkena / 17:30**
**Abenduak 10, osteguna / 19:30**



Halako batean, Charlie osaba Santa Rosara iristen da, hiri horretan bizi baita bere familia, bera hainbeste miresten duena. Seduktore kriminal bat da Charlie, Filadelfiatik Kaliforniara doana, justizia atze-atzean duela. Charlieren ilobak luze gabe susmatuko du bere osaba dela emakume alargun dirudunen hiltzaile misteriotsua.

108' / Estatu Batuak
**Z**: Alfred Hitchcock
Reville, Sally Benson
**A**: Teresa Wright, Joseph Cotten, Macdonald Carey, Henry Travers, Patricia Collinge, Hume Cronyn, Wallace Ford

## Jour de fete (1949)

Jaieguna

**Abenduak 16, asteazkena / 17:30**
**Abenduak 17, osteguna / 19:30**



Saint Sévère herria jai handi bat ospatzear dago. Kaleak girlandaz eta banderaz bete dira. Ferialariek egurrezko zalditxoak, tonbolak eta pagotxak ekarri dituzte gurdietan. Zinema ibiltariaren proiekzio batean, herriko postaria den Françoisek, ferialariei laguntzeko irrikaz, ideiak aurkitu ditu gutunak emateko sistema berri bat ezartzeko, baina hondamendiak besterik ez dira gertatuko.

81' / Frantzia
**Z**: Jacques Tati
**A**: Jacques Tati, Santa Relli, Guy Decomble, Paul Frankeur, Maine Vallee, Roger Rafal

### INFORMAZIOA

**Film guztiak jatorrizko bertsioan proiektatuko dira, gaztelaniaz azpititulatuak (JBGA).**

**Zinematekako programazioan azken orduko aldaketak egon daitezke.**

**+ Info: azkunazentroa.eus**

Filma proiektatu baino 15 minutu lehenago irekiko dugu aretoa. Gomendatzen dizugu minutu batzuk lehenago etortzea, filma hasi ondoren ezin baita aretoan sartu.

### LABURDURAK

A: Aktoreak | Z: Zuzendaria

Irudiak: Imdb

Zikloko eskuliburua Az Infon eskatu edota azkunazentroa.eus-en deskarga ezazu.

**AZA. 24** (astr.)

# Kinu#3: Sabine Groenewegen

## *Odyssey*

Tractora Koop. E.

«IRUDI HAUEN ATZEAN DAGOENAK MODU POETIKO BATEAN BAIZIK EZIN DU LEKU BAT AURKITU KANPORATUA IZAN DEN MUNDU IKUSGARRIA».

- DEBORDEMENTS ALDIZKARIA, **ODYSSEY**-RI BURUZ



Tractora, Azkuna Zentroko Kolektibo Egoiliarrak, *Kinuren* hirugarren saioa aurkeztuko du azaroaren 24an; mugimenduan dagoen irudiaren inguruko autoprestakuntza proiektua da *Kinu*.

Kinu#3 saioa Sabine Groenewegen-i eskainita dago. Saioan, *Odyssey* (2018) lanaren estreinaldia egingo da. Zinemagilearen azken lana da bera, ametsezko saiakera bat, artxiboko irudien materialtasunean sakontzen duena, irudi kolonial naturalizatuen dekonstrukzioa egiteko. Filmeko adimen zehaztugabeek gai erresistente batek planeta infektatu batera iristean sortzen dituen seinaleen multzo bat aztertzen dute, istorioen fluxua, denbora eta ulertzen saiatzen ari diren espazioa nahasten baitituzte.

Aurkitutako metrajea, zientzia-fikzioa eta poesia bateratuz, *Odyssey* (2018) lanak zalantzan jartzen du erretorika bisuala, eta galderak egiten ditu kontatzen dizkiguten istorioei eta horiek eteteko ditugun aukerei buruz.

Azaroak 24, asteartea

19:00
Auditorioa

Sarrera dohainik, aurrez azkunazentroa.eus webgunean izena emanda, leku guztiak bete arte

**Sabine Groenewegen-en masterclass-a**

Azaroak 18, asteazkena

Bastida Aretoa + Streaming

Informazio gehiago: azkunazentroa.eus

**Lantaldea#3**

Azaroak 25, asteazkena

sabinegroenewegen.com



**SABINE GROENEWEGEN** (Haga, 1985) mugimenduan den irudia, collagea eta murgiltze-esperientziak lantzen dituen artista da. Gaur egun aztertzen ari da gure arbasoen esperientziak nola diren gure egungo eta etorkizuneko errealitate psikobiologikoaren parte. Haren lehen film luzea (*Odyssey*, 2018) hainbat jaialditan parte hartzeko hautatu dute, Doclisboa eta FID Marseille barnean hartuta, eta arte-zentroen programazioan ere sartu dute, hala nola Londresko Institute of Contemporary Arts-en (ICA). Kritikak goretsi egin du hainbat argitalpenetan, besteak beste, Film Comment eta Debordements-en, eta zinema independenteko kritikarien epaimahai batek emandako Film Onenaren saria jaso du Doc Alliance lehiaketan (zinema dokumentaleko jaialdi nagusietako zazpik batera emandako saria, CPH:Dox barne). Halaber, Film Luze Esperimental Onenaren saria jaso zuen Istanbul Experimental Film Festival-en.

**Tractora** eartisten kooperatiba **Azkuna Zentroko Kolektibo Egoiliar** berria izango da bi urtez. + info: 62. orr.

# Bilboko Zinemaldi Fantastikoa - FANT

Bilboko Udalak antolatutako Zinemaldi Fantastikoa - FANT-en 26. edizioa azaroaren 7an hasiko da auditorioan, inaugurazio-gala batekin eta Steven Kostanski zuzendariaren *Psycho Goreman* filmaren eta Paul Urkijoren *DAR - DAR* film laburraren proiekzioarekin.

Zinemaldiko Sail Ofizialean aurten lehiatuko diren hamar film luzeen artean, Joost van Hezik-en *Boy Meets Gun* (NETH, 2020) eta Catherine Linstrum-en *Nuclear* (EB, 2019) filmen estatuko estreinaldia nabarmendu behar da. Bestalde, FANT Laburrean atalean, 21 lan aurkeztuko dira, horietako hamar euskal sortzaileek eginak. Ikuspegi fantastikoa izeneko ataleko doako proiekzioak ere nabarmentzen dira programan.

Zinemaldiak zinema fantastikoko hiru maisu omenduko ditu aurten: John Carpenter, Donald Cammell eta Bong Joon Ho.

Gainera, FANT 26an, Álex de la Iglesiak HBOrentzat egindako telesail berria estreinatuko da Bilbon,*30 monedas*, eta dagoeneko 20 urte bete dituen *La Comunidad* filma proiektatuko da. Bestalde, aukera izango da *Parasitos* filmaren zuri-beltzeko kopiaren estreinaldiaz ere gozatzeko.

Zinemaldia azaroaren 12an amaituko da auditorioan, Ryan Spindell-en *The Mortuary Collection* (AEB, 2020) lanarekin. Gala horretan, 26. edizioko sarituen zerrenda ezagutzera emateaz gain, Fantrobia saria emango zaio Galder Gaztelu-Urrutiari, hau da, *El Hoyo* filmaren zuzendari bizkaitarrari.

Urrian eta azaroan hiriko kultura-planez beteko duen #BilbaoUdazkena2020 udal-ekimenaren barruan sartuta dago FANTa.

**FANT**-EK ZINEMA FANTASTIKOKO HIRU MAISU OMENDUKO DITU AURTEN: JOHN CARPENTER, DONALD CAMMELL ETA BONG JOON HO.

Azaroak 7 > 12
Larunbata > Osteguna

Golem Alhóndiga Zinemak

5€ / 4€ Az Txartelarekin
Abonoa: 30€
Sarrerak: Golem Alhóndiga Zinemako txarteldegian eta golem.es

Programa osoa: fantbilbao.eus

FANT 2020 MAIATZAK 8-16 MAYO 26. Edizioa Edición

# ZINEBI. Bilboko Dokumentalen eta Film Laburren Nazioarteko Jaialdia (62. edizioa)

ZINEBIren 62. edizioak formatu hibridoa izango du aurten. Filmak zinema-aretoetan erakusteaz gain —gehienak Azkuna Zentroan—, beti egin izan den bezala, alde birtual bat izango du, eta publikoarengana hurbilduko ditu —Filmin eta Festhome plataformen bidez— Nazioarteko Lehiaketako Sail Ofizialean parte hartzen duten 60 film laburrak, ZIFF - Zinebi First Film saria eskuratzeko lehiatzen diren 9 film luzeak —denak estreinaldiak estatuan—, eta Beautiful Docs atalean parte hartzen duten 9 dokumentaletatik 8. Horien artean, berariaz nabarmentzen dira Ulrike Ottinger, Frederick Wiseman eta Jia Zhangke zinemagile famatuen azken lanen estatuko estreinaldiak.

Aurtengo edizioak Jean-Pierre eta Luc Dardenne belgikarren ibilbide eta dimentsio artistikoa aintzatetsiko du, ohorezko sarien bidez, mundu osoko kritikak eta ikus-entzuleek txalotu baitituzte beren fikziozko lana. ZINEBIk Ohorezko Mikeldia emango die eta Azkuna Zentroan proiektatuko ditu lehenbiziko dokumentalak. Besteak beste, lehenengo lanetako baten bertsio berritua, Estatuan orain arte ikusi gabea den *Le chant du rossignol* (1977).

Halaber, Ohorezko Mikeldi bana emango die 80ko eta 90eko hamarkadetan Bizkaiko zineman aitzindari izan ziren bi emakumeri: Ana Murugarren zuzendari, gidoilari eta muntatzaileari, eta María Eugenia Salaverri idazle, gidoilari eta ekoizleari.

Gainera, ZINEBIk aurten berariaz nabarmenduko du film laburra, gaur egungo zinemako zuzendari interesgarrienetako batzuen topaleku den aldetik; eta lehiaketatik kanpo aurkeztuko ditu, Glimpses - Distirak izeneko saioaren barruan, besteak beste, Luca Guadagnino, Alice Rohrwacher eta Jafar Panahiren azken lanak.

**ZINEBIREN**
62. EDIZIOA AURREKO GUZTIEN DESBERDINA IZANGO DA. EDIZIO HIBRIDOA IZANGO DA, ETA ZINEMA-ARETOETAN FILMAK ERAKUSTEAZ GAIN, HAINBAT PROIEKZIO ETA JARDUERA IZANGO DIRA ONLINE PLATAFORMEN BIDEZ.

Azaroak 13 > 20
Ostirala > Ostirala

Golem Alhóndiga Zinemak

Informazio gehiago: zinebi.eus

# Eguillor inédito. La obra póstuma inacabada

José Carlos Torreren hitzaldia, Luis Gascak aurkeztuta

JUAN CARLOS EGUILLOR ILUSTRATZAILEAREN ALDERDI BERRI BAT BISTARAZIKO DU **JOSE CARLOS TORREK**, 'ZIRIMIRIAREN' BILBOKO KRONISTA LANAREN BAITAN EROTISMOA ETA MITOLOGIA KOMIKIAREKIN, LITERATURAREKIN ETA POESIAREKIN UZTARTU ZITUENEKO ALDEA




José Carlos Torrek hautatutako Eguillorren komiki-tira

Juan Carlos Eguillor margolari, marrazkilari eta ilustratzailea (Donostia, 1947 - Madril 2011) Euskadiko komikiaren eta prentsa-marrazkiaren historiako autorerik garrantzitsuenetako bat izan zen.

José Carlos Torre ikerlari eta marrazkilariak Eguillorren ondarearen inguruan egindako azken lana aurkeztuko du, bideo-arte lanengatik ere nabarmendu zen artista transmedia horren sormen-munduari eta ibilbideari buruzkoa. Luis Gasca editoreak aurkeztuko duen *Eguillor inédito. La obra póstuma inacabada (Eguillor argitaragabea. Hil ondoko obra amaitu gabea)* saioan, marrazkilari horren barne mundua ezagutzeko aukera izango da, 'zirimiriaren' Bilboko kronikagile lanetik harago.

José Carlos Torrek aurreratu duenez, «erotismoa eta mitologia komikiarekin, literaturarekin eta poesiarekin uztartzen dira» mundu horretan, eta «sexualitatea estalkirik gabe tratatzen du; hau da, gizonezkoen gorputza lanerako material gisa berrinterpretatzen du, desitxuratuz eta zatituz, Francis Bacon gogorarazten duen jolasean». Azaldu duenez, «publikoki hainbeste kritikatu zuen begirada burges aspergarritik salbu, argitaratu gabe gordetako» alderdi bat da. Izan ere, «diktadurako eta trantsizioko errepresio-egoerak baldintzatuta, nahiago izan zuen 'zirimiri bilbotarraren kronikako marrazkilari' lana doi egin. Rol horrekin identifikatzen zen, zalantzarik gabe, eta bizitza osoan zehar herrialde zabaleko prentsarentzat lan eginez bereganatu zuen, baina hori inolaz ere ez dagokio hark zuen sormen mailari», ohartarazi du José Carlos Torrek.

Hil eta bederatzi urtera, «barneratuta ditugun aurreiritziak identifikatzen laguntzen jarraitzen digu Eguillorrek, eta, tamalez, sutsu defendatzen ditugu horiek, konturatu gabe benetan ez direla gureak, ez gaituztela ordezkatzen, nola eta gu aspertuaren aspertuz azkenean erabat desagerrarazi ez gaituzten», baieztatu du ikertzaileak.

Azaroak 5, osteguna

17:30 - 19:30
Mediateka BBK. TK202

Sarrera dohainik gonbidapenarekin (jaso Az Infon) leku guztiak bete arte

**Mediateka BBK**-n **Juan Carlos Eguillorri** eta haren lanari buruzko bibliografia zabala kontsulta daiteke.

# Irakurketa Errazeko Kluba

## Irakurketa dinamikoa, askotarikoa eta irekia

Mediateka espazio integratzaile bihurtu da, harrera egin eta konektatzen duena. Topaketan, lankidetzan eta trukean oinarritutako lekua da, eta ikaskuntzaren esperientzia eta kultura garaikidera hurbiltzea ditu egituratzeko ardatz. Habitat berri bat da, bertan egiten diren jarduerei dinamika berriak eskaintzen dizkiena. Horixe da, izan, urrian Mediatekan aktibatu diren Irakurketa Errazeko Kluben kasua.

Irakurketa partekatuari eta hari buruz hitz egiteari gaineratu behar zaie liburuak, bere istorioak edo idatzi duenak iradokitzen duten guztia, eta, hala, aukera ematen du Zentroan garatzen diren beste publiko eta jarduera batzuekin esku hartzeko, hala nola arte garaikidearekin, literatura-sorkuntzarekin, musikarekin edo antzerkiarekin.

«Gure tresnak dira hitzak, gure ahotsak, iritziak, gogoetak eta esperientziak, irakurketa-klubaren ardatz nagusiari buruzkoak beti: liburua eta saioz saio irakurtzen dugun istorioa», dio Blanca Matak, Irakurketa Errazaren Euskadiko sustatzaileak.

Mediatekan biltzen den pertsona-taldea «inklusioaren, dibertsitatearen eta parte-hartzearen eredu bat» da, azaltzen du Matak, adinekoek eta gazteek osatzen baitute, hala aniztasun funtzionala dutenek nola horrelakorik gabekoek, bai eta, besterik gabe, beste pertsona batzuekin irakurketa partekatuaren esperientzia izateko interesa dutenek ere.

Alde horretatik, irakurketa errazeko formatura egokitutako liburuek aukera ematen dute literatura unibertsaleko klasikoetara edo autore berriagoen nobelen bertsioetara hurbiltzeko eta haietaz gozatzeko. «Hori egingo dugu, hala gaztelaniazko klubean, nola euskarazkoan». Euskararen kasuan, «nagusiki izango da hizkuntza ikasten ari diren pertsonekin, edo euskaraz irakurtzeko ohitura gutxi duten eta hizkuntza horretan literatura modu partekatuan irakurri nahi duten pertsonekin».

GURE TRESNAK DIRA HITZAK, GURE AHOTSAK, IRITZIAK, GOGOETAK ETA ESPERIENTZIA PARTEKATUAK, IRAKURKETA-KLUBAREN ARDATZ NAGUSIARI BURUZKOAK BETI: LIBURUA ETA SAIOZ SAIO IRAKURTZEN DUGUN ISTORIOA.

**Gaztelania**

Azaroak 5, 12, 19
Osteguna

11:00 - 12:00
Mediateka BBK. TK202

**Euskara**

Azaroak 3, 10, 24
Abenduak 1
Asteartea

17:00 - 18:00
Mediateka BBK. TK202

# Transbiótica Bilbao - Sorkuntza Kolektiborako Gailua (SKG)

Transbiótica Bilbao - Sorkuntza Kolektiborako Gailua kultura-praktiken, diseinuaren, arkitekturaren, zientziaren eta teknologien (gogor eta bigunen) arteko ikerketa-ekintzarako proiektu bat da, non trans-a eta biotikoa aplikatzen baitira komunitate-bizitzarako ditugun ingurunetan eta sistemetan.

Gure garaiaren konplexutasun gero eta handiagoari erantzuten dio, are gehiago krisialdi sistemiko soziopolitiko, kultural, ekonomiko eta ingurumenekoak zeharkatuta dagoen gaur egungo egoeran. Hausnarketa- eta irudikapen-proiektu bat da, eta, SKGren bidez, espazio digitala erabiltzen laguntzen du, Az-ko lotune fisiko batekin konektatuta, komunitateen eta biztanleen artean jakintza eta elkarreragina sortzeko, haien parte-hartzearen bidez.

SKGk berrikuntza irekiaren logika eta transdiziplinaritatea ditu oinarri, eta berrikuntza soziala, teknologia berriak eta kultura librea uztartzen ditu. Bi ingurune (fisikoa eta digitala) sortzen eta lotzen ditu, eta ingurune hibridoa osatzen du, 'paisaia' propositiboak, etikoak eta estetikoak kolektiboki eraikitzeko. Kode irekiko lineako plataforma baten bidez funtzionatzen du, edozeinek erabiltzeko moduan. Jendearen ekarpenak mihise interaktibo baten gainean bistaratzen dira, eta adimen kolektiboaren ondorio diren eboluzio-irudikapenak proposatzen dira. Bilboko herritarrei gonbit egiten zaie beren etorkizunari buruz modu kolaboratiboan gogoeta egitera, ikuspegi transbiotikoei jarraiki.

SORKUNTZA KOLEKTIBOKO GAILU HONEK BERRIKUNTZA SOZIALA, TEKNOLOGIA BERRIAK ETA KULTURA LIBREA BATERATU, ETA ARLO FISIKOAREN ETA DIGITALAREN ARTEKO LOTURAK SORTZEN DITU.

**Abendua**

**Mediateka BBK**

**Ideia eta antolakuntza:**
Pez Estudio eta ColaBoraBora

pezestudio.org

colaborabora.org



TransBio Diseinu Saioa AZ 2020

# VII Bilbao European Encounters

## Bilbao European Dialogues

*Pandemiaren erronkak Europako testuinguruan*

Bilbao European Encounters-en zazpigarren edizio honetan, Globernance-k ahalegina egingo du Europaren integrazioak gaur egun dituen erronkei buruzko hausnarketa-prozesua herritarrei hurbiltzeko.

Oraingo honetan, hala titulua, *Pandemiaren erronkak Europako testuinguruan*, nola formatua, hibridoa, online eta aurrez aurrekoa, egungo egoerara egokitu dira.

Hiru saioetako bakoitzak berariazko erronka bat landuko du, Europako testuinguru geografikoan, Covid-19ak eragin duen krisiari lotuta. Izan ere, Europar Batasunaren krisi existentzialaz hitz egitea ekarri zuen hasierako shock handiaren ondoren, azken hilabeteetan hartutako erabaki politikoek itxuraz berresten dute Batasunak krisiek zabaldutako aukerak aprobetxatuz hazteko duen gaitasuna.

Hiru mahai-inguruetan, gogoeta egin nahi da irekitako ondorioei eta aukerei buruz, baita pandemiak eragindako erronkei eta EBk haiei eman dien erantzunari buruz ere.

Bastida Aretoan izango diren hiru saioetara joateko eta online egiteko, aldez aurretik izena eman behar da.

Abenduak 3, 10 eta 17
Ostegunak

18:30
Bastida Aretoa

Aurrez aurre: 5 € ekitaldi bakoitzeko edo 10 € hiru ekitaldietarako (pentsiodunen, ikasleen, langabetuen edo antzekoen kasuan izan ezik) eta aldez aurretik izena emanda.

Online: dohainik, izena eman ondoren.

Informazio gehiago, sarreren salmenta eta izen-emateak: bilbaoeuropeanencounters.org

GLOBERNANCE

# SORKUNTZA ARTISTIKOKO PROIEKTUAK

## Kolektibo Egoiliarra

# Tractora Koop. E.

## *Kinu*

Tractora Koop. E. artisten kooperatibak *Kinu* proiektua garatuko du bi urtez, Azkuna Zentroko kolektibo egoiliar gisa. Kinu arte-mugimenduaren irudia edo artist moving image-ri buruzko autoprestakuntzako taldea da.

Usue Arrietak eta Ainara Elgoibarrek 2019az geroztik bultzatutako proiektu hau plataforma gisa sortu zen, artisten ikus-entzunezko produkzioak programatzeko, ikusteko eta eztabaidatzeko. Hiru hilean behingo topagunea da, artista bat bere




Tractora Koop. E. *Kinu#2*. Ainara Elgoibar, Maddi Barber, Usue Arrieta.

lana erakustera gonbidatzeko eta harekin batera lan-saio bat egiteko, praktika-mota horri eta haren berezitasunei buruz taldean gogoeta egiteko.

Ildo horretan, *Kinu* autoprestakuntzako tresna bat da esperientzia sortzaileak partekatzeko, eta, horien bidez, espazio emankorrak irekitzeko bertako -eta, beraz, komunitateko- eragileen ekoizpenerako eta prestakuntzarako, haien beharrizanetatik eta nahietatik abiatuta.

*Kinuk* hiru hilean behin artista bat gonbidatuko du, eta hiru jarduera-mota egingo dira haren lanaren inguruan. Hasteko, haren obraren aurkezpen publikoa eta eztabaida txiki bat. Ondoren, artistak zuzendutako saio bat, egun bateko edo biko lantalde egonkor samar batekin batera (Lantaldea). Talde horren dinamika gonbidatuaren neurrira diseinatuko da. Azkenik, lantaldea osatzen duen pertsona batek testu bat egingo du (Distirak), lantalde bakoitzaren esperientzia jasotzeko.

*Kinu#1* saio pilotuarekin hasi zen, Elena Aitzkoa artistaren eskutik. Azkuna Zentroko kolektibo egoiliarra da irailaren 17tik, orduan abiarazi baitzuen *Kinu#2* saioa, Maddi Barber gonbidatu hartuta; eta *Kinu#3*rekin egingo du aurrera, azaroaren 24an, Sabine Groenewegen zinemagileari eskainitako saio batekin.

Lantaldea#1 eta Lantaldea#2 lan-saioek filmaketa izan zuten ardatz. Lantaldea#3 azaroaren 25ean izango da, eta besteren materialetatik abiatuta film bat egiteko ekintzaren inguruan jardungo du. Sabine Groenewegen-ek emandako master class batekin abiatuko da, eta Esfir Shub (1894-1957) zinemagile errusiarraren lanean sakonduko da (saiakera-zineman eta apropiazio zinematografikoan aitzindaria).

Azken saio horretako testua (Distirak#3) Pablo Marte artistaren esku egongo da.

**TRACTORA KOOP. E.** artisten kooperatiba bat da, eta 2013an sortu zen, kideen arteko lankidetza-harremanak formalizatzeko. Denbora igaro ahala hazten joan da, bere bazkideen proiektu artistikoak eta kooperatibako kideekin interesak, afektuak eta kezkak partekatzen dituzten hirugarren pertsonen proiektuak sortzeko, ekoizteko eta banatzeko euskarri gisa.

2016. urtetik aurrera, proiektu kolektiboen ekoizpenera zabaldu da jarduera; proiektu horietan kideek parte hartzen dute, artean egiten den lanaren, produkzio-bideen, funtzio sozialaren eta artista garaikidearen praxiaren inguruan taldeak egin duen barne-gogoetako beste urrats bat bezala

kinu.group

**Kolektibo Egoiliarrak** programaren helburua da sorkuntza artistikoari sostengua ematea, iraupen luzeko laguntza emanez hizkuntza artistikoak eta kultura garaikidea askotariko moduetan eta ikuspegietatik lantzen dituzten hurbileko taldeei, kultura programazioa artikulatzeko elkarrekiko konplizitatea sendotzeko.

**Sabine Groenewegenen** proiektuari buruzko informazio zehatzagoa: 52. orr.

# Babesturen hamar proiektuak aukeratu dira

Covid-19ak eragindako krisiaren ondorioz sorkuntza artistikoan izan den geldialdia saihesteko orain dela hilabete batzuk irekitako aparteko deialdian, 103 proiektu aurkeztu dira guztira. Horietatik, egile hauen lanak aukeratu dira: Elena Aitzkoa, Maider Aldasoro, Borja Crespo & Raquel Meyers, Irati Inoriza, Miriam Isasi, Sahatsa Jauregi, Karlos Martinez, Camila Téllez, Josune Urrutia eta Iker Vázquez.



## Sahatsa Jauregi Azkarate

***Aizkora***

*Aizkora* ikerketan, artistak hainbat irudi jaso ditu, Euskal Herriko historia kulturala objektu jakin baten bidez (aizkora) ikonografikoki nola eraiki den erakusten dutenak. Album honek alderdi formalak, sinbolikoak, soziologikoak, biografikoak, filmikoak eta aizkoraren alde animistak ere hartu ditu kontuan, eta eskulturaren bidez sendotu nahi diren erreferentzien multzoa sortu du horrela.

Irudia: Arte y crítica



## Camila Téllez

***Transición primaveral***

Erreferentzia gisako autobiografiatik, *Transición primaveral* ikerketaren oinarria da gorputzaren oroimena eta identitatea berreraikitzeko eta subjektibotasuna eraldatzeko prozesu etengabea. Irudi banpiriko polemikoak hartzen ditu erreferentzia gisa, literaturatik gure garaiko zinemara joz, irudi horiek aldatzen eta garaikidetasuna islatzen jarraitzen baitute.

Irudia: bifm



## Raquel Meyers & Borja Crespo

***Elige tu propia normalidad***

*Elige tu propia normalidad* lanak premiazko gogoeta kritiko bat du sorburu, inork deszifratzea lortzen ez duen etorkizunari egindako begirada berriei buruzkoa, alde digitalak duen eragin ulergaitzetik haratago. Bizitza sarean, sarerik gabe. Proiektuak elkarrizketarako eta kritikarako gune bat sortu nahi du garai pandemiko hauetan; aldaketarako gune bat, agian horrelakoa izango ez dena, aldaketa hutsekoa eta azaleko helburuetakoa.



## Josune Urrutia

***Onko***

Arte- eta osasun-gaiei buruzko pentsamendu, hausnarketa eta sorkuntzarako zeharkako gunea da *Onko*. Gaixotasun-esperientziak izandako pertsonak, osasun- eta kultura-arloko erabiltzaileak eta profesionalak, eta gai horiekiko interesa duten pertsonak biltzen ditu.



## Elena Aitzkoa

*Lendia Song*

*Lendia Song* Lendia lakuaren inguruko proiektu performatibo eta kolaboratiboa da. Kantuaren, ikus-entzunezkoaren eta dantzaren bidez, natura eta paisaiarekiko harremana agerian jarri, eta koreografia bat eraikitzen du ikus-entzunezko kantutegi gisa.



## Maider Aldasoro

*Eterno Noeterno*

*Eterno Noeterno* beste pertsona batzuekin edo haien aurrean egindako ekintza performatiboen multzoa da, eta desiraren gehiegikeria adierazten du haien bidez. Artistak dioenez, «Desiratik egin, baina ez da nire desioa. Bakarrik jaiotzen den gorputz bat, oker jaiotzen da. Egikeran dago indarra. Performatzen ez badut ez dago, partekatzen ez bada ez du zentzurik».



## Irati Inoriza

*Nadie se baña dos veces en el mismo río, sino en el pantano mismo*

Ikus-entzunezko istalazio gisa aurkezten da proiektu hau, eta zenbait performance eta gure identitateei eusten dien artxibo antropologikotik abiatuta egituratzen da, gorpuztasun plastikoaren bidez, haren errealitate, zeinu eta metaforarekin.



## Iker Vázquez

*Az Reality Lab*

*Az Reality Lab* proiektuaren helburua da emakumearen irudikapenari buruzko lan-espazio iragankorra izatea. Emakume sortzaileei irekitako parte-hartze prozesu bat da, eta irudikapen berriak proposatu nahi ditu, gaur egungo kosifikazio sinbolikoaren alternatibak egituratzeko.



## Miriam Isasi

*Resina, brea y glicerina*

Paisaiaren identitateari lotutako ikerketa honek sendabelarren eta haien sistema immunologikoen erabilera hartzen du abiaburutzat. Bilaketa koniferoen basoetan hasiko da, eta arrokako erretxina hartuko du hari eroale gisa proiektuaren garapenean zehar.



## Karlos Martinez B.

*Plan K. Gut*

*Plan* arte-proiektuak aurkezteko espazio etena izan nahi du, eta ohiko erakusketa- eta entzumen-aretoetatik kanpoko beste leku batzuetan sartu nahi du, zeharkako elkarrizketak eratzeko eragileen eta erakundeen artean eta lankidetza-moduak sortuko dituzten sareak osatuz.

**Babestu, sorkuntza garaikidea babesteko programa berezia**, sorkuntza bultzatzeko deialdia da Covid-19ak eragindako krisiak kaltetutako prozesuak eta ikerketak dituzten bertako artistei eta kultura-eragileei zuzendua.

# AZ-KIDEAK ARTISTAS E INVESTIGADOR@S ASOCIAD@S A AZ

## Aimar Arriola *Forma desira*

Aimar Arriola Az-Kidea Investigador Asociado a Az da. Apiriletik aurrera eta bi urtez, *Forma desira* proiektuan jardungo du, artearen eta queer perspektibaren arteko harremanaren inguruko ikerketan, Zentroaren programazioaren barruan sartuta, eta kultura bisualaren esparruko gorputz- eta artxibo-gaien inguruan egin duen lanik berrienarekin lotuko du, arteari eta plastikari buruzko gai espezifikoagoekin.

+ info: 33. orr.



Irud.: Helena Goñi 2019

**AIMAR ARRIOLA** (Markina-Xemein, 1976) komisarioa, editorea eta ikertzailea da. Doktorea da Londresko Goldsmiths Unibertsitateko Kultura Bisualen Sailetik. Erakusketa eta programa publikoak antolatu ditu, besteak beste, toki hauetan: MACBA; The Showroom, Londres; Centro Centro, Madril; Bilboko Arte Ederren Museoa; eta Tabakalera, Donostia. Gaur egun, Eremuak programako Batzorde Teknikoko kidea eta Az-Kideak programako ikertzaile AZ kidea da.

arriolaaimar - aimar.arriola

## Isabel de Naverán

Isabel de Naverán izango da 2021az geroztik Azkuna Zentroari lotutako Az-Kidea Investigadora Asociada a Az berria. UPV/EHUko artean doktorea eta dantzako ikertzailea da. Gaur egungo dantza-prozesuak eta koreografia garaikidea aztertzen ditu, kontzeptuak ondorioztatzeko, galderak proposatzeko eta arte edo diskurtso bidezko ekoizpen-moduak aktibatzeko.



**ISABEL DE NAVERÁN** (Bilbo, 1976) Madrilgo Reina Sofía Museoko dantza-aholkularia da gaur egun. 2010ean Bulegoa z/b sortu zuen Bilbon, Leire Vergara, Miren Jaio eta Beatriz Caviarekin. ARTEAko kidea da (Madril), eta Praktika Eszeniko eta Kultura Bisualeko Masterreko (UCLM) eta Arteko Ikerketa eta Sorkuntzako Masterreko (UPV/EHU) irakaslea ere bai. 2016 eta 2018 bitartean, dantzako gorputz-transmisioari eskainitako 'Elipsiak' zikloko komisarioa izan zen Azkuna Zentroan.

## Laida Lertxundi. *Escuela efímera*

Laida Lertxundi Az-Kidea Artista Asociado a Az izango da 2021ean eta 2022an, eta *Escuela efímera* lana garatuko du. Proiektuak zortzi tailer ditu, eta esperimentu pedagogiko bat sortu nahi du instituzio akademikoen mugetatik kanpo.



**LAIDA LERTXUNDIK** Gure Artea 2020 Saria irabazi zuen. Arte Ederren Masterra egin zuen Kaliforniako Arteen Institutuan, eta BFA programa Bard College-n. Bakarkako lana erakutsi du nazioarteko museo, jaialdi eta galerietan. Arte Ederretako eta Giza Zientzietako irakaslea da Pasadenako Art Center College of Design-en.

laidalertxundi.com

## Sra. Polaroiska. *Emakume jakintsuen kontseilua*

Sra. Polaroiska Kolektiboa (Alaitz Arenzana eta María Ibarretxe), Az-Kideak Artistas Asociadas a Az, adineko emakumeen erreferenteen sorrerari eta ahalduntzeari buruzko bere sorkuntza-prozesua gauzatzen ari da. Gaur egun, *Emakume jakintsuen kontseilua* proiektua garatzen ari dira; belaunaldien arteko topaketa bat, hainbat arlo sozial eta profesionaletan erreferente diren adineko emakumeekin.



Alaitz Arenzanak eta Maria Ibarretxek eratzen dute **SRA. POLAROISKA** kolektiboa. Beren obrak zinema esperimentala, ekintzako artea, eta sorkuntza eszenikoa eta koreografikoa ditu ardatz. 2017an Gure Artea saria irabazi zuten, sorkuntzan egindako jardueraren onespen gisa, eta nazioarteko arte-zentro eta jaialdi askotan erakutsi dituzte beren pieza eszenikoak eta ikus-entzunezkoak.

cargocollective.com/srapolaroiska - sra polaroiska

## Oscar Gómez Mata *Makers*

Oscar Gómez Matak, Az-Kidea Artista Asociado a Az-k, *Makers* pieza sortzeko lanean jarraitzen du, uda hasieran Zentroan eta orain La Chaux-de-Fonds-eko (Suitza) TPRn (Théâtre Populaire Romand) egonaldia izan ondoren.

Argiari, denborari eta maitasunari buruzko lana da *Makers*, eta gainezkatze komikoaren eta emozio-euspenaren artean egiten du bidaia, zentzugabekeriaren eta egiaren artean. Piezaren sorkuntza-prozesuari dagokionez, sortzaileak bi alde bereizten ditu: batetik, alde epikoena, non antzerkia «espioitza-modu bat den, mundua zaintzeko ikerketa-modu bat», eta, bestetik, alderik intimoena, «sentimenaren azpian ezkutatuta dagoen sentiberatasuna hautematen saiatuz». *Makers* 2021eko apirilean estreinatuko da Azkuna Zentroko arte eszenikoen EscenAZ denboraldian.

Proiektu honetaz gain, Az-Kidea Artista Asociado a Az gisa, Oscar Gómez Matak *Deriben katalogoa* aktibatu du, Espe López artistarekin batera. Katalogoak hainbat deriba edo ibilaldi proposatzen ditu, eguneroko hiri-paisaien behaketa eta esplorazioa lantzeko. Orain, koaderno bat sortzen ari dira, proposatutako deribak biltzeko. Deriba horietako batzuk esperimentatu nahi dituztenek Az Infon eska ditzakete.



**OSCAR GÓMEZ MATA** (Donostia, 1963) Suitzan bizi da eta bertan lan egiten du, Genevan. Aktorea, zuzendaria, egilea eta eszenografoa da. Espainian hasi zen antzerki-jardueretan, 1987an Legaleón-T konpainiaren sortu baitzuen beste kide batzuekin batera, eta ikuskizunak egin baitzituen haiekin 1996ra arte. 1997an, L'Alakran konpainia sortu zuen Genevan, eta zuzendaritza, sorkuntza, dramaturgia eta zenbait ikuskizunetako testuak egin ditu bertan. Suitzako antzerkiko sari nazionala eskuratu zuen 2018an.

alakran.ch

**Az-Kideak Artistas e Investigador@s Asociad@s a Az** programak sorkuntza eta ikerkuntza bultzatzen ditu, eta laguntza eman nahi die beren lanen bidez hizkuntza garaikideei buruzko begirada iradokitzailea dakarten artistei. Gonbidapen bidez, hainbat artista eta ikertzailerekin aritzen gara, haien prozesuan laguntzen eta partekatzen, haien proiekzioa sustatzen eta beste sare artistiko batzuekin lotzen.

# Deialdiak eta egonaldiak 2020-2021

2020an era askotako ekimenak daude, ikerketa, sorkuntza eta ekoizpena sustatzeko, zuzeneko eta erakusketako arteen inguruan, artelanen ekoizpena bultzatzeko eta herritarrengana hurbiltzeko, hala egindako obra nola sorkuntzako prozesuak erakutsiz.

**Oinarriak kontsultatu azkunazentroa.eus wegbunean**

## Dantza Garaikideko Egonaldia

### 2021eko apirilaren 4ra arte

Azkuna Zentroak zabalik du Dantza Garaikideko Egonaldiaren deialdia, Rotterdameko (Herbehereak) Dansateliers sorkuntza- eta erakusketa-zentroarekin lankidetzan egina. Egoitza hau dantzako profesionalentzat da eta bi etapatan garatzen da. Lehena Azkuna Zentroan izango da, eta pieza koreografiko bat ikertzeko eta sortzeko prozesua jorratuko du.

Bigarrena Rotterdamen izango da, eta egoiliarrak Dansateliers-eko taldearen aholkularitza eta mentoring artistikoa izango du eskura lana garatzeko. Aldi berean, Dansateliers Rotterdam-ek Holandako testuinguruari lotuta dagoen koreografo bat hautatuko du, antzeko ibilbidea egin dezan, deialdi honetan hautatutako egoiliarrarekin harremanean jarrita.

## Praktika Artistikoetako Egonaldia

### 2021eko apirilaren 4ra arte

Azkuna Zentroaren Praktika Artistikoen Egonaldiak Kubako eta Euskadiko artisten arteko trukea sustatzen du, bi espazioetan ikerketa-aldi bat eginez, testuinguru artistiko desberdinetan eta bertakoetan ikerkuntza eta lana bultzatzeko asmoz.

Deialdia apirilaren 4ra arte egongo da zabalik, Euskal Herriari lotutako lana eta ibilbidea duten artistei zuzenduta dago eta Carlos Garaicoa estudioak Habanan egiten duen Artista x Artista programarekin lankidetzan egiten da.

Bilbon aukeratutako pertsonak Kuban egingo du egonaldiaren lehen zatia, eta Azkuna Zentroan bigarrena. Aldi berean, Carlos Garaicoa estudioak eta Azkuna Zentroa - Alhóndiga Bilbaok Kubako artista bat hautatuko dute, eta horrek antzeko ibilbide bat egingo du, Bilboko artista egoiliarrarekin harremanetan jarrita, Zentroko egonaldian.

## Komikiaren Nazioarteko Egonaldia

Laster, Komikien Nazioarteko Egonaldia aktibatuko da, Québeceko Maison de la littératurerekin eta Angoulêmeko Cité internationale de la bande dessinée et de l'image-rekin lankidetzan. Programa horren bidez, hiru egilek era bateratuan garatuko dituzte beren proiektuak hiru egoitzetan: Angoulêmen, Québec-en eta Bilbon.

Sabadell Fundación

Fundación Banco Sabadellek Azkuna Zentroa – Alhóndiga Bilbaoko Egonaldi Artistikoen Programa babesten du, artea eta kultura sustatzeko eta hedatzeko duen programaren barruan.

etxepare Euskal Institutua

Azkuna Zentroa – Alhóndiga Bilbaoko Egonaldi Artistikoen Programak Etxepare Institutuaren laguntza du.




URTE | AÑOS | YEARS | ANS

AZ

# Azkuna Zentroa argitalpenak

Azkuna Zentroaren argitalpenen corpusak arte-praktika garaikidea biltzen du, ezagutzeko eta zabaltzeko. Zentroko programazio-lerroen inguruko erakusketen, saiakeren eta liburuen katalogoek osatzen dute.

## Datozen argitalpenak:




Izenburua:
Akromatikoa. Partida Hilezkorra

Hizkuntzak:
Euskara, gaztelania, ingelesa

### Mabi Revuelta. Akromatikoa. Partida Hilezkorra

Mabi Revuelta (Bilbo, 1967) artistaren *Akromatikoa. Partida Hilezkorra* erakusketaren katalogoa. Susana Blasek komisariatutako (Madril, 1969), eta Azkuna Zentroak (2020ko urriaren 14tik 2021eko urtarrilaren 24ra) eta Madrileko Tabacalera Promoción del Arte espazioak (2021eko otsaila) elkarrekin ekoitzitako erakusketa.

Artistaren ibilbidea berrikusten eta azken lana aurkezten du. Xakea hari eroaletzat hartuta, erakusketak bi zati bereizitan banatzen da: *Akromatikoa* (proiektu berria) eta *Denbora-lerroa* (hiru hamarkadako lanaren atzera begirako sintetikoa). Aurrez berrikusitako eskultura-pieza bat dago (*Natura hila perla beltzekin*, 2012-2020). Inoiz argitaratu gabeko *Akromatikoa* proiektua historiako xake-partidarik artistikoenetako batean oinarrituta dago: 1851n Adolf Anderssen eta Lionel Kieseritzkyren artean jokatutako Hilezkorra izenekoan.



### Alondegiari buruzko ikerketa-liburua

Bilbok beste alondegi batzuk izan zituen, zerbitzu guztiak eraikin berean zentralizatu aurretik 1909tik aurrera. Ikerketa-liburu honek barnean biltzen du ehun urtetik gorako bizitza gorabeheratsu eta interesgarri hori, Mikel Bilbao Salsidua eta Arantxa Pereda Angulo arte-historialariak aztertu dutena.

Argitalpen honen ardatza dira Ricardo Bastidaren Udal Alondegiaren proiektuaren aurreko egoera eta arkitektoak Bilboko hiria garatzeko izan zuen interesa. Era berean, 60ko hamarkadan itxi ondoren izandako proiektuak eta erreformak aztertzen ditu, Phillipe Starcken proposamena eta Bilboko egungo Gizarte eta Kultura Garaikidearen Zentroaren sorrera ondorio izan zituztenak.

## Salgai:




**Ana Laura Aláez.**
**Kontzertu guztiak, gau guztiak, dena hutsik**

20€

ISBN: 978-84-451-3832-8

Ezaugarriak:
230 x 167 mm / 323 orrialde

HIzkuntzak:
Euskara, gaztelania, ingelesa



**Inoiz ez erreala / Beti egiazkoa**
Katalogo / Liburua

19€

ISBN: 978-84-09-14258-3

Ezaugarriak:
230 x 160mm

Hizkuntzak:
Euskara, gaztelania, ingelesa

Banaketa:
La Rueda editoriala



**Ikuspegi feministak produkzio artistikoan eta arte teorietan ikastaroaren 11. edizioa**

18€

Ezaugarriak:
164 x 230 mm / 417 orrialde

Hizkuntzak:
Euskara, gaztelania, ingelesa



**Angela de la Cruz. Homeless**
Katalogo / Liburua

35€

ISBN:  978-84-09-08967-3

Ezaugarriak:
200 x 270 mm / 159 orrialde

Hizkuntzak:
Euskara, gaztelania, ingelesa



**El Contrato. Bulegoa z/b**

21€

ISBN:
978-84-608-4972-8 (eus-gaz)
978-84-608-4973-5 (ing-gaz)

Ezaugarriak:
220 x 165mm / 304 orrialde

Hizkuntzak:
Euskara / gaztelania
Ingelesa / gaztelania



**Maria Luisa Fernández.**
**Je, je... luna**

21€

ISBN: 978-84-608-1518-1

Ezaugarriak:
290 x 215mm / 136 orrialde

Hizkuntzak:
Euskara, gaztelania

Azkuna Zentroa argitalpenak **dendAZ** eta **dendaz.azkunazentroa.eus-**en erosi ditzakezu
Informazio gehiago: azkunazentroa.eus

**Hamar urte hauetan gurekin izandako erakunde guztiei:**

# Eskerrik asko!

## Bilboko Udala - Ayuntamiento de Bilbao

**Patrocinador Babesle estrategikoa**

**BBK Fundazioa**

**Erakunde babesleak**

Fundación Banc Sabadell • BBVA • Laboral Kutxa • CaixaBank • BEAZ • Fundación EDP • Philips • Conteneo • Mahou - San Miguel • Fundación Euskaltel • Garbiker • Pernod Ricard • Grupo Urbegi

**Entidades laguntzaileak**

Metro Bilbao • Cementos Lemona • Ikea • Samsung • Alsa • Renfe • Asociación Vasca de Periodistas • Asociación de Libros • Dinof • Generali Seguros • Coca Cola • Café El Abra • Cervezas La Salve • Cervezas Alhambra • Connects • Cruz Roja • DYA • Fnac • Heineken • Red Bull • Bodega Urbana • Elkar Unity • Enter bio • Google Cloud • Cvne • **Operadoreak:** Cines Golem • Grupo Yandiola • **Kontratazioak:** Aero-Fer • Baulan • Deusto Sistemas • EmterSPORT • George&Mildred • Giroa • Globalia • Gráficas Garcinuño • Gráficas Irala • Grafo • Ibermática • Ilunion • Lanalden • Lin3s • Odei • Sedena • Urbegi • Veolia • VK Comunicación • Zorrozua

**Hedabide laguntzaileak**

El Correo • Cadena Ser • Deia • EITB • Aux Magazine • Berria • BI FM • Cactus • El Mundo • El Nervión • El País • eldiario.es • Gara • Kmon • Noiz • Onda Vasca • Periódico Bilbao • Radio Popular • Teatron

### Lagunak diren instituzioak

Gobierno Vasco • Diputación • Ministerio de Cultura • AC/E (Acción Cultural Española • British Council • Cuerpo Consular de Bilbao • Centro Checo • Embajadas de Noruega, Australia, Canadá, Estados Unidos, Francia, Irlanda, Países Bajos, Rusia, Suecia • Goethe Foundation • Institut d'Estudis Balèarics • Etxepare Euskal Institutua • Foro Cultural Austria • Goethe Institut • Institut Français • Instituto Italiano de Cultura • Japan Foundation • NORLA • Pro Helvetia

### Unibertsitateak

Euskal Herriko Unibertsitatea / Universidad del País Vasco • Mondragon Unibertsitatea / Universidad de Mondragón • Universidad de Deusto • Oulu University • BCU Birmingham University • Digipen • Instituto de Estudios de Ocio • University of Pennsylvania • Deustobide • Harrobia

### Lagunak diren programak

Berbagune • Bilbao Art District • Bilbao Bizkaia Design Week • Bilbao European Encounters • Bilbao Música • Bilbao Orkestra Sinfonikoa • BIME • Zinemagileen artean - Emakumeek egindako Bilboko Zine Karabana • Dantzaldia • Dantzan Bilaka • Elías Querejeta Zine Eskola • Eremuak • Donostia Zinemaldia • Bilboko gaylesbotrans Nazioarteko Zinema eta Arte Eszenikoen Jaialdia - Zinegoak • Bilboko Zinemaldi Fantastikoa - FANT • Bilboko Dokumentalen eta Film Laburren Nazioarteko Jaialdia - Zinebi • Film Sozialak - Zinema Ikusezinaren Nazioarteko Jaialdia • Gau Zuria • Laboratorio KLEM • Loraldia • Maker Faire • MOV's • Bilbao Proyecto Zine Eskola • Zinemakumeak Gara! • Zinexit. Giza Eskubideen Zinema Erakustaldia

### Lagunak diren kultura-zentroak

Albuquerque Museum • Ars Electronica • Art Divas • ArtistaXArtista • Artium. Centro-Museo Vasco de Arte Contemporáneo de Vitoria-Gasteiz • CAPC Musée d'Art Contemporain de Bordeaux • Casa América • Centre de Cultura Contemporània de Barcelona - CCCB • Centro Cultural Montehermoso • Centro de Arte Dos de Mayo - CA2M • Centro Gallego de Arte Contemporáneo - CGAC • Citée de la Bande Dessinée • Colleccion BEEP Epson • Culturgest - Fundação Caixa Geral de Depósitos • Dansateliers • Dortmund-U • Etopia. Centro de arte y tecnología • Euskal Museo Museo Vasco • Filmoteca Vasca • Fondation Cartier • FRAC Lorraine • La Casa Encendida • Liechtenstein National Museum • Maison de la Litérature Québec • MARCO - Museo de Arte Contemporáneo de Vigo • Matadero Madrid • Mercat de las Flors • Musée de Picardi • Museo de Bellas Artes de Bilbao • Museo de Reproducciones de Bilbao • Museo Guggenheim Bilbao • Museo Oteiza • Museu d'Art Contemporani de Barcelona - MACBA • Red Española de Teatros • San Telmo Museoa • SFMoma • smARTplaces • Tabacalera - Promoción del Arte • Tabakalera • Teatro Arriaga • Van Abbmuseum • ZKM Zentrum Für Kunst und Medien

# 10 URTE

**CON ZUEN LAGUNTZARI ESKER,**
**PROIEKTU HAU EGIN AHAL IZAN DUGU**

AGENDA

# AGENDA
# / AZAROA

| NOIZ | ORDUA | LANA/JARDUERA | DISZIPLINA | +INFO |
|---|---|---|---|---|
| IRA. **1** > AZA. **1** | | **Amparo Badiola, Gema Intxausti eta Susana Talayero** *Scriptbarik* | Arte bisualak / Erakusketa-proiektua | 24. orr. |
| URR. **1** > ABE. **15** | | **Pernan Goñi** *Emakume apartak* | Arte bisualak / Interbentzioa | 30. orr |
| URR. **14** > URT. **24** | | **Mabi Revuelta** *Acromática. Una Partida Inmortal* | Arte bisualak / Erakusketa | 22 orr. |
| AZA. **2** Astl. | 9:30 11:30 | **Mitusu, haur eta gazteentzako antzerki-aretoa** | Arte biziak / Antzerkia | 36 orr. |
| AZA. **3** Astr. | 17:00 | **Irakurketa Errazeko Kluba (euskara)** | Literatura / Irakurketa | 58 orr. |
| AZA. **4** Astz. | 9:30 11:30 | **Mitusu, haur eta gazteentzako antzerki-aretoa** | Arte biziak / Antzerkia | 36 orr. |
| | 17:30 | **Zinemaren historiako 50 harribitxi (II. zatia)** *Manhattan* (1979) | Zinema eta ikus-entzunezkoak / Zinemateka | 50 orr. |
| AZA. **5** Ostg. | 11:00 | **Irakurketa Errazeko Kluba (gaztelania)** | Literatura / Irakurketa | 58 orr. |
| | 17:30 | **Eguillor inédito. La obra póstuma inacabada** José Carlos Torreren hitzaldia | Literatura / Literatura-komiki topaketa | 56 orr. |
| | 19:30 | **Zinemaren historiako 50 harribitxi (II. zatia)** *Manhattan* (1979) | Zinema eta ikus-entzunezkoak / Zinemateka | 50 orr. |
| AZA. **6** Ostr. | 9:30 11:30 | **Mitusu, haur eta gazteentzako antzerki-aretoa** | Arte biziak / Antzerkia | 36 orr. |
| AZA. **7 > 12** Lar. > Ostg. | 19:30 | **Bilboko Zinemaldi Fantastikoa - FANT** | Zinema eta ikus-entzunezkoak | 54 orr. |

| NOIZ | ORDUA | LANA/JARDUERA | DISZIPLINA | +INFO |
|---|---|---|---|---|
| AZA. **10** Astr. | 17:00 | **Irakurketa Errazeko Kluba (euskara)** | Literatura / Irakurketa | 58 orr. |
| | 17:30 | **Tailerra Aitor Saraibarekin** *Autobiografías (Autobiografiak)* | Hezkuntza programa / Marrazketa eta idazketa | 34 orr. |
| AZA. **11** Astz. | 17:30 | **Tailerra Aitor Saraibarekin** *Autobiografías (Autobiografiak)* | Hezkuntza programa / Marrazketa eta idazketa | 34 orr. |
| AZA. **12** Ostg. | 11:00 | **Irakurketa Errazeko Kluba (gaztelania)** | Literatura / Irakurketa | 58 orr. |
| AZA. **13 > 20** Ostr. > Ostr. | 19:30 | **ZINEBI. Bilboko Dokumentalen eta Film Laburren Jaialdia** | Zinema eta ikus-entzunezkoak | 55 orr. |
| AZA. **18** Astz. | | **Masterclass de Sabine Groenewegen. *Kinu#3*** | Zinema eta ikus-entzunezkoak / Kolektibo Egoiliarra | Pág. 52 |
| AZA. **19** Ostg. | 11:00 | **Irakurketa Errazeko Kluba (gaztelania)** | Literatura / Irakurketa | 58 orr. |
| AZA. **19 >** OTS. **21** | | **Iván Gómez** *La prospección de Kairós* | Arte bisualak / Erakusketa-proiektua | 26 orr. |
| AZA. **24** Astr. | 17:00 | **Irakurketa Errazeko Kluba (euskara)** | Literatura / Irakurketa | 58 orr. |
| | 19:00 | ***Kinu#3*: Sabine Groenewegen** *Odyssey* | Zinema eta ikus-entzunezkoak / Kolektibo Egoiliarra | 52 orr. |
| AZA. **25** Astz. | 16:30 | **Hitzaldiak. Iván Gómez** *La prospección de Kairós* | Arte bisualak / Hitzaldia | 26 orr. |
| | 19:00 | **Iker Gómez** *Un día Cisne en el Teatro* | Arte biziak / Dantza | 38 orr. |
| | 17:30 | **Zinemaren historiako 50 harribitxi (II. zatia)** *Stagecoach* (1939) *Diligentzia* | Zinema eta ikus-entzunezkoak / Zinemateka | 50 orr. |

# AGENDA
# / AZAROA

| NOIZ | ORDUA | LANA/JARDUERA | DISZIPLINA | +INFO |
|---|---|---|---|---|
| AZA. **26** Ostg. | 16:30 | **Hitzaldiak. Iván Gómez** *La prospección de Kairós* | Arte bisualak / Hitzaldia | 26 orr. |
| | 20:00 | **Iker Gómez** *Un día Cisne en el Teatro* | Arte biziak / Dantza | 38 orr. |
| | 19:30 | **Zinemaren historiako 50 harribitxi (II. zatia)** *Stagecoach* (1939) *Diligentzia* | Zinema eta ikus-entzunezkoak / Zinemateka | 50 orr. |
| AZAROAN ZEHAR | | **Leticia Paschetta** *Paisaia ludiko zuria. Laztanen jokoa (Caresses Playscapes)* | Arte bisualak / Instalazioa | 35 orr. |
| | | **Néstor Lizalde** *Akelarre elektrikoa* | Arte bisualak / Instalazioa | 35 orr. |

# AGENDA
# / ABENDUA

| NOIZ | ORDUA | LANA/JARDUERA | DISZIPLINA | +INFO |
|---|---|---|---|---|
| URR. **14** > URT. **24** | | **Mabi Revuelta**<br>*Acromática. Una Partida Inmortal* | Arte bisualak / Erakusketa | 22 orr. |
| AZA. **9** > OTS. **21** | | **Iván Gómez**<br>*La prospección de Kairós* | Arte bisualak / Erakusketa | 26 orr. |
| ABE. **1** Astr. | 17:00 | **Irakurketa Errazeko Kluba (euskara)** | Literatura / Irakurketa | 58 orr. |
| | 18:30 | **Sra. Polaroiska**<br>*Emakume jakintsuen kontseilua* | Az-Kideak Artistas Asociadas a Az / Topaketa | 32 orr. |
| ABE. **2** Astz. | 17:30 | **Zinemaren historiako 50 harribitxi (II. zatia)**<br>*Bande á part* (1964) *Aparteko banda* | Zinema eta ikus-entzunezkoak / Zinemateka | 50 orr. |
| ABE. **3** Ostg. | 18:30 | **VII Bilbao European Encounters**<br>Bilbao European Dialogues | Gizartea / Topaketa | 60 orr. |
| | 19:30 | **Zinemaren historiako 50 harribitxi (II. zatia)**<br>*Bande á part* (1964) *Aparteko banda* | Zinema eta ikus-entzunezkoak / Zinemateka | 50 orr. |
| ABE. **3**. > URT. **30** | | **Mario Paniego**<br>*Espacio públic(itari)o* | Arte bisualak / Erakusketa | 28 orr. |
| ABE. **9** Astz. | 17:30 | **Zinemaren historiako 50 harribitxi (II. zatia)**<br>*Shadow of a doubt* (1943) *Zalantza baten itzala* | Zinema eta ikus-entzunezkoak / Zinemateka | 51 orr. |
| ABE. **10** Ostg. | 18:30 | **VII Bilbao European Encounters**<br>Bilbao European Dialogues | Gizartea / Topaketa | 60 orr. |
| | 19:30 | **Zinemaren historiako 50 harribitxi (II. zatia)**<br>*Shadow of a doubt* (1943) *Zalantza baten itzala* | Zinema eta ikus-entzunezkoak / Zinemateka | 51 orr. |
| | 19:30 | **Wang-Ramirez Company**<br>*W.A.M. - We are Monchichi* | Arte biziak / Dantza | 40 orr. |

# AGENDA
# / ABENDUA

| NOIZ | ORDUA | LANA/JARDUERA | DISZIPLINA | +INFO |
|---|---|---|---|---|
| ABE. **15** Astr. | 19:00 | **Aimar Arriola, Manu Arreguirekin hizketan** *Forma desira* | Az-Kidea Investigador Asociado a Az / Topaketa | 33 orr. |
| ABE. **15** > MAR **1**. | | **Josune Urrutia** | Arte bisualak / Interbentzioa | 30 orr. |
| ABE. **16** Astz. | 17:30 | **Zinemaren historiako 50 harribitxi (II. zatia)** *Jour de fete* (1949) *Jaieguna* | Zinema eta ikus-entzunezkoak / Zinemateka | 51 orr. |
| ABE. **17** Ostg. | 18:30 | **VII Bilbao European Encounters** Bilbao European Dialogues | Gizartea / Topaketa | 60 orr. |
| | 19:00 | **Janet Novás y Mercedes Peón** *Mercedes máis eu* | Arte bisualak / Dantza eta musika | 42 orr. |
| | 19:30 | **Zinemaren historiako 50 harribitxi (II. zatia)** *Jour de fete* (1949) *Jaieguna* | Zinema eta ikus-entzunezkoak / Zinemateka | 51 orr. |
| ABE. **27 eta 28** Iga. eta astl. | | **El conde de Torrefiel** *Los protagonistas.* | Arte biziak / Dantza | 44 orr. |
| ABE. **29 eta 30** Astr. eta astz. | | **Macarena Recuerda Shepherd** *¡AY! ¡YA!.* | Arte biziak / Dantza | 46 orr. |
| ABENDUAN ZEHAR | | **Leticia Paschetta** *Paisaia ludiko zuria. Laztanen jokoa (Caresses Playscapes)* | Arte bisualak / Instalazioa | 35 orr. |
| | | **Néstor Lizalde** *Akelarre elektrikoa.* | Arte bisualak / Instalazioa | 35 orr. |
| | | **Transbiótica Bilbao - Dispositivo de creación colectiva** | Kultura digitalak / Ikerkuntza proiektua | 59 orr. |



# INFORMAZIO OROKORRA

## ZENTROAREN ORDUTEGIA ALARMA-EGOERAN

Egunero 9:00etatik 21:00etara.

## BISITA GIDATUAK

Bisita gidatuen programaren bidez, Alhóndigaren historiaren eta haren eraldaketaren berri jakin daiteke, bai eta Zentroan dagoen kultura-programazioa ere.

BANAKAKO BISITAK:

Astelehena eta asteartea (gaztelaniaz), 19:00

Osteguna (euskaraz), 19:00

Bisita dohainik da, 30 minutuko iraupena du, eta gutxienez 4 eta gehienez 9 lagun behar dira egin ahal izateko.

TALDEKAKO BISITAK:

Bisita taldeka egin nahi baduzu (gehienez 9 lagun), asteko edozein egunetan egin dezakezu erreserba, goizeko 10:00etatik arratsaldeko 19:00etara. Prezioa 50 eurokoa da (25€ behar bezala eratuta dauden eta bisita hau beren jarduera-egutegian sartzen duten elkarteak).

Informazioa eta erreserbak, gutxienez 48 ordu lehenago: Az Infon eta 944 014 014 telefonoan, edo info@azkunazentroa.eus posta elektronikoan.

## Az TXARTELA

Az Txartelak aukera ematen dizu kultura, gizarte eta ariketa fisikoko jarduerak biltzen dituen eskaintza zabalaz gozatzeko gure zentroan. Zentroko Txartelarekin, jarduera guztien inguruko informazioa jasoko duzu aldizka, eta deskontu eta abantaila interesgarriak lortuko dituzu. Txartela emateak eta behar denean berritzeak 3 euroko kostua du.

## IRISGARRITASUNA

Azkuna Zentroak espazio errespetuzko, ireki eta irisgarria izan nahi du orotariko pertsona eta komunitateentzat. Gure jardueretan errazago parte hartzeko laguntza teknikorik behar baduzu, eska iezaguzu.

## GOLEM ALHÓNDIGA ZINEMAK

Informazioa eguneratua kontsulta ezazu golem.es webgunean.

## YANDIOLA, THE BOAR, HOLA BAR

Informazioa eguneratua kontsulta ezazu yandiola.com webgunean.

Azkuna Zentroak **Bureau Veritas-en Global Safe Site ziurtagiria** du, zeinak bermatzen baitu behar bezala betetzen direla Osasunaren Mundu Erakundeak (OMEk), Osasun Ministerioak eta beste osasun-agintari batzuek COVID-19ari aurre egiteko ezarritako segurtasun-neurriak, garbiketa-protokoloak eta babes pertsonaleko eta antolakuntzako neurriak. Gainera, Zentroko langileek berariazko prestakuntza- eta kontzientziazio-plana bete dute COVID-19aren prebentzioari dagokionez, eta, horren bidez, Azkuna Zentroak indartu dezake ezarritako osasun-neurrien betetze-maila.

## Gogoan izan:



Zure maskara erabili




Distantzia mantendu



Espazioetara sartu baino lehen eta irteterakoan



Ez ukitu aurpegia



Ez ukitu azalera komunak. Egiten baduzu, garbitu eskuak



Erabili bakarrik beharrezkoa bada eta adierazitako edukiera errespetatuz



Ordaintzeko, txartelarekin hobe

Informazio osoa kontsulta ezazu:



Mabi Revuelta. *Acromática. Una Partida Inmortal*

# Jar zaitez harremanetan Az-rekin

azkunazentroa.eus

Artistak: programacioncultural@azkunazentroa.eus
Deialdiak: deialdiak@azkunazentroa.eus
Jendearentzako arreta: info@azkunazentroa.eus

944 014 014

PLAZA ARRIQUIBAR, 4
48010 BILBAO

Lege gordailua BI-1482-2018

© 2019. Centro Azkuna de Sociedad y Cultura Contemporánea S.A.

Bilbao

gizartea eta kultura garaikidea

azkunazentroa.eus

AZKUNA
ZENTROA
ALHÓNDIGA
BILBAO